

EAEko IBAIEN ETA ERREKEN ERTZAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA – ISURIALDE KANTAUARRA

1. LIBURUKIA

1.1. MEMORIA OROKORRA

**EAEko IBAIEN ETA ERREKEN ERTZAK ANTOLATZEKO
LURRALDEAREN ARLOKO PLANA-
ISURIALDE KANTAUARRA**

1. <u>SARRERA ETA AGIRIAREN EGITURA</u>	1
1.1. AURKEZPENA	1
1.2. AGIRIAREN OSAKETA.....	2
2. <u>LEGE-MARKOA ETA AURREKARIAK</u>	4
2.1. LURRALDE-ANTOLAMENDUKO LEGERIA: LAL eta LAA.	4
2.2. UREN LEGERIA.....	9
2.3. ITSASERTZEN LEGERIA	13
2.4. AURREKARIAK.....	14
2.4.1. LAP idazteko prozesua.....	14
2.4.2. LAAen hasierako onarpenaren agiria.....	15
2.4.3. LAParen aurrelaburpena.....	20
2.4.4. LAParen aurrelaburpena jendaurrean jarri zenean izandako erantzunak.....	24
2.5. EUSKAL HERRIKO LURRALDE-ANTOLAMENDUKO BATZORDEAK LURRAZALEKO UREN TRATAMENDUARI DAGOKIONEAN 1998ko APIRILAREN 2ko BILKURAN ONARTUTAKO IRIZPIDEAK.....	26
3. <u>ERTZEK EGUN DUTEN EGOERA</u>	40
3.1. EAEko IBAIEN ERTZEN TRATAMENDUARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA.....	40
3.1.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak.....	40
3.1.2. Hidraulika -osagaiaren alderdiak.....	47
3.1.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak.....	49
3.2. INFORMAZIO-SINTESIA.....	51
3.2.1. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak.....	52
3.2.2. Hidraulika-osagaiaren alderdiak.....	53
3.2.3. Hirigintza-osagaiaren alderdiak.....	54
4. <u>ERTZAK ANTOLATZEKO LAP: ALDERDI METODOLOGIKOAK</u>	55
4.1. LAParen GAIA.....	55
4.2. ANTOLAMENDU-EREMUA ETA AGINPIDEAREN INGURUKO ALDERDIAK.....	56
4.3. AGIRIAREN OINARRI METODOLOGIKOAK.....	57
4.4. HERRI-JABARIKO EREMUEK MUGABANAKETA	58
4.5. UBIDEAK ETA ARROAK IDENTIFIKATZEA ETA DEFINITZEA	59
4.6. LAParen DOKUMENTAZIO GRAFIKOA	60
5. <u>ERTZAK ANTOLATZEKO IRIZPIDEAK ETA PROPOSAMENAK</u>	62
5.1. IZAERA OROKORREKO IRIZPIDEAK ETA PROPOSAMENAK.....	62
5.2. ERTZETAN ZONAK ETA IBAITARTEAK BANATZEA HIDRAULIKAREN, INGURUGIROAREN ETA HIRIGINTZAREN OSAGAIEN ARABERA: ERTZAK ANTOLATZEKO MAPAK.....	67
5.3. BERARIAZKO IRIZPIDEAK ETA PROPOSAMENAK INGURUGIRO-OSAGAIAREN ARABERA.....	71
5.3.1. Ertzak zonatan banatzea ingurugiro-osagaiaren arabera	71
5.3.2. Ertzak beren ingurune-osagaiaren arabera antolatzeke irizpideak.....	77

5.4.	BERARIAZKO IRIZPIDEAK ETA PROPOSAMENAK	
	HIDRAULIKA-OSAGAIAREN ARABERA	79
5.4.1.	Ubiderapenen zabaleren kalkulu hidraulikoa	79
5.4.2.	Ibaibideak ibaitartetan banatzea	88
5.4.3.	Ertzak beren hidraulika-osagaiaren arabera antolatzeko irizpideak.....	89
5.5.	BERARIAZKO IRIZPIDEAK ETA PROPOSAMENAK	
	HIRIGINTZA-OSAGAIAREN ARABERA	91
5.5.1.	Ertzak zonatan banatzea hirigintza-osagaiaren arabera	91
5.5.2.	Ertzak beren hirigintza-osagaiaren arabera antolatzeko irizpideak.....	92
5.6.	ERREGULAZIO NORMATIBOA	101

**EAEko IBAIEN ETA ERREKEN ERTZAK ANTOLATZEKO
LURRALDEAREN ARLOKO PLANA –
ISURIALDEA KANTAUARIARRA**

1. LIBURUKIA

1.1. MEMORIA OROKORRA

1. AURKEZPENA

1.1. SARRERA

“EAEko IBAIEN ETA ERREKEN ERTZAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA –ISURIALDE KANTAUARIARRA” izeneko agiri hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak garatu du.

Lanaren zuzendaritza Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritzari egokitu zaio eta berorrek koordinatu du agiriaren idazketa Ingurugiro Sailordetzako Ingurugiro Baliabideen Zuzendaritzarekin, Garraio eta Herrilan Sailaren Plangintza eta Obra Hidraulikoen Zuzendaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoen eta Hirigintzako Departamentuekin.

Agiri hau Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen aurreikuspenen barruan koka dezakegu. Aurrelaburpena, 1993an egindakoa eta 1994an zegokion gisan jendaurrean jarri zena, izan du aurrekari. LAAk 1997an onartu ziren behin betiko eta orain Ertzak Antolatzeke LAParen behin betiko agiria garatzeari ekin diogu.

1.2. AGIRIAREN OSAKETA

EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana – Isurialde Kantauriarra izeneko agiriaren osagaiak honako hauek dira:

- **1. agiria:**
 - 1.1. Memoria orokorra.**
 - 1.2. Memoria partikularra.**
 - 1.2.A) Bizkaiko itsasertzera isurtzen duten ibaiak.**
 - 1.2.B) Gipuzkoako itsasertzera isurtzen duten ibaiak.**
- **2. agiria:** Araudia
- **3. agiria :** Mapak
1/150.000 eskalako bi mapa orokor, arroen hainbat eskalatako 12 mapa eta ertzak antolatzeko 29 eta 24 mapetako hiru serieko bi bilduma, 1/25.000 eskalakoak, Bizkaiari eta Gipuzkoari dagozkienak hurrenez hurren.

Honela egituratu da:

- 1. LIBURUKIA :** 1.1. **MEMORIA OROKORRA**
- 2. LIBURUKIA:** 1.2.A. **MEMORIA PARTIKULARRA. BIZKAIKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK**
(MAPA OROKOR 1, 1/150.000)
(ARROEN 9 MAPA, hainbat eskala)
- 3. LIBURUKIA:** 1.2.B. **MEMORIA PARTIKULARRA. GIPUZKOAKO ITSASERTZERA ISURTZEN DUTEN IBAIAK**
(MAPA OROKOR 1, 1/150.000)
(ARROEN 3 MAPA, 1/75.000)
- 4. LIBURUKIA:** 2. **ARAUDIA**
- 5. LIBURUKIA:** **ERTZEN ANTOLAMENDUAREN MAPAK (BIZKAIA ETA ARABA)**
INGURUGIRO-OSAGAIAREN ALDERDIAK
(PLANO-GIDA 1 ETA 29 MAPA 1/25.000)
- 6. LIBURUKIA:** **ERTZEN ANTOLAMENDUAREN MAPAK (BIZKAIA ETA ARABA)**
HIDRAULIKA-OSAGAIAREN ALDERDIAK
(PLANO-GIDA 1 ETA 29 MAPA 1/25.000)
- 7. LIBURUKIA:** **ERTZEN ANTOLAMENDUAREN MAPAK (BIZKAIA ETA ARABA)**
HIRIGINTZA-OSAGAIAREN ALDERDIAK
(PLANO GIDA 1 ETA 29 MAPA 1/25.000)

- 8. LIBURUKIA:** **ERTZEN ANTOLAMENDUAREN MAPAK (GIPUZKOA)**
INGURUGIRO-OSAGAIAREN ALDERDIAK
(PLANO-GIDA 1 ETA 24 MAPA 1/25.000)
- 9. LIBURUKIA:** **ERTZEN ANTOLAMENDUAREN MAPAK (GIPUZKOA)**
HIDRAULIKA-OSAGAIAREN ALDERDIAK
(PLANO-GIDA 1 ETA 24 MAPA 1/25.000)
- 10. LIBURUKIA:** **ERTZEN ANTOLAMENDUAREN MAPAK (GIPUZKOA)**
HIRIGINTZA-OSAGAIAREN ALDERDIAK
(PLANO-GIDA 1 ETA 24 MAPA 1/25.000)

Alabaina Publikazio honetan agertzen dira Memoria Orokorra, Arandia eta Gipuzkoako itsasertzera isurtzen duten ibaien Memoria Partikularra eta Mapak.

2. LEGE-MARKOA ETA AURREKARIAK

2.1. LURRALDE-ANTOLAMENDUKO LEGERIA: LAL eta LAA

4/1990 Legeak, maiatzaren 31koak, Euskal Herriko Lurralde Antolamenduari buruzkoak, lurzorua eta baliabideak hobeto erabiltzeko lurralde-plangintzarako tresnak ezarri zituen, baita lurraldearen jardueran eragina duten instantzien arteko harremanen definizioa ere.

Ilido horretatik, 4/1990 Legeak antolamenduko hiru figura ezarri zituen: Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAA), Lurraldearen Zatiko Planak (LZP) eta Lurraldearen Arloko Planak (LAP).

- Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAA) dira lurralde- eta hirigintza-antolamenduko gainerako tresnak formulatzeko erreferentziazko marko orokorra.

- Horien lehen garapen-maila lurraldearen zatiko planak dira (LZT), antolamendu zehatzagoa behar duten eremuetara bideratutakoak.

- Eta Legean aurreikusitako hirugarren figurak lurraldearen arloko planak dira (LAP), lurralde-eragina izango duten arloko antolamenduko tresna gisa, Eusko Jaurlaritzako sailek eta lurralde historikoetako foru-organoei egindakoak.

Ertzen antolamenduko LAParen agiri hau, bada, lurralde-antolamenduko hirugarren agiri-multzo horretan koka dezakegu.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan, behin betiko 28/1997 Dekretuaren, otsailaren 11koaren, bidez onartutakoetan, EAEko ibaien, erreken eta urtegien ertzak antolatze mekanismoak ezarri ziren.

Zehatzago esateko, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatze Lurraldearen Arloko Planaren ingurukoak dira 8. kapituluko 5.2.D. eta 6.8.7. epigrafeetan.

Ondoren bi epigrafe horietako testua duzue.

EAEko LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO ARTEZPIDEAK
BEHIN BETIKO ONARPENA: 28/1997 DEKRETUA, otsailaren 11koa
8.5.2.D. eta 8.6.8.7. EPIGRAFEAK

8. Ingurune fisikoaren antolamendua

5. INGURUNE FISIKOAREN ELEMENTU ETA PROZESUEI ETA JARDUEREN KONTROLARI BURUZKO ARTEZPIDE OROKORRAK

5.2. Ingurune Fisikoaren Elementu eta Prozesuei buruzko Artezpide Orokorrak.

D. LURRAZALEKO UREN TRATAMENDUA

d1. Epigrafe honek EAEko urtegi, ibai eta erreken aldamenen dauden lur urbanizaezinen, urbanizagarrien eta hiri-lurren lurralde-antolamendua du aztergai. Ubide iraunkorrak ulertuko dira ibaitzat eta errekek, berriz, urtaroen araberrako zirkulazio hidrikoa dutenak izango dira.

d2. Urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruan Lurrazaleko Urak Babesteko Antolamendu Kategoriarako ezarritako zehaztapenak aplikatuko dira, 6.8.7. Artezpidean azaltzen denaren arabera. Antolamendu-kategoria hau adierazitako elementuek eta hauei dagokien babes-zonak osatzen dute. Sare hidrografikoko babes-zerrenden zabalera, ibai eta erreka, aintzira eta urtegien multzorako, urek ohiko ur-bolada handietan duten gehienezko mailatik edo gehienezko urtegi-mailatik neurtuta, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak zehaztuko du.

EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAP hau behin betiko onartzen den artean, plangintza orokorrak eta hiri-plangintzak Lurralde Antolamenduko Batzordeak horretarako erabili ohi dituen irizpideak hartuko ditu aintzakotzat.

d3. Sare hidrografikoaren aldamenen dagoen urbanizagarri edo urbanizatzeko egoki gisa sailkatutako lurzoruan, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAP behin betiko onartzen den artean, udal-plangintzak Lurralde Antolamenduko Batzordeak horretarako erabili ohi dituen irizpideak hartu beharko ditu kontuan. Eraikinek ibai-ubidearekiko mugan duten gehienezko lerrokatutaren eta uren gehienezko mailaren kanpoaldeko lerroaren artean dagoen espazioan Lurrazaleko Urak Babesteko Zona bat ezartzean dautza irizpide hauek.

d4. Lurzoru urbanizagarrian, Lurrazaleko Urak Babesteko Zona espazio librean sistema/berdegunetzat hartu ahal izango da eta derrigorrezko eta doako lagapen bidez lortu ahal izango da, lurzoru urbanizagarriko aldameneko sektorearen kargura.

d5. Sare hidrografikoaren aldameneko hiri-lurzoruko lurretan, egun dagoen antolamenduari eusteko beharrezkoa denean, d3 atalean lurzoru urbanizagarriko adierazitako babes-zerrenden zabalera murrizteko baimena eman dezake udal-plangintzak, betiere alde aurretik murrizketa hori eta lurzoruaren destinoa justifikatuta. Dena den, Uren Legean adierazitako herritarren erabilerarako zortasunak bere horretan utziko dira.

d6. Udal-plangintzak, Uren Legean eta berau garatzen duen araudian ezarritakoaren arabera, lurzoruaren erabilera baldintzapean dituen Lurrazaleko Urak Babesteko Zona urbazterren alde bietan 100 metroko distantziaraino zabal dezake lurzoru urbanizagarrian eta urbanizaezinean, udalerriko ubideen eta ur-masen berariazko ezaugarrien arabera eta arrisku naturalari buruzko irizpideak eta Eusko Jaurlaritzaren "Uholdeen Prebentziorako Plan Integralaren" gomendioak kontuan hartuta.

d7. EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana idatziko da.

d8. Oro har, EAEko lurrazaleko baliabide hidriko guztietarako, edozein ur-aprobetxamendu eman baino lehen, froga bidez ziurtatu beharko da gutxieneko emari ekologikoari eutsiko zaiola.

d9. Debekatuta dago itsasoan, herri-ubideetan, urtegietan, ureztatze-erretenetan edo lurpeko akuiferoetan urak poluitu eta herritarren osasunari edo aprobetxamenduei kalteak eragin diezazkieketen konposizio kimiko edo fisikoa edota eduki bakteriologikoa duten urak zuzenean edo zeharbidez isurtzea. Isurkiak sor ditzakeen edozein jardueratarako lizentzia lortu ahal izateko, sare orokorrera zuzenean konektatzen direnak izan ezik, lurrazaleko, lurpeko edo itsasoko urak ez poluitzeko moduko tratamendua justifikatu beharko da. Hondakin-uren tratamenduak ingurune hartzailearen autodepurazio-ahalmena errespetatu beharko du, emaitzazko uren kalitatea destinatzen direneko erabilerei exiji dakiekeen kalitate-arauen barruan egon dadin. Herri-ubideen kasuan, kalitate hori beren legezko sailkapenak ezarritako mugetara egokituko da.

6. INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDU-KATEGORIEN ARTEZPIDE PARTIKULARRAK: LURRALDE-EREDUA

6.8. Ingurune Fisikoaren Antolamendu-Kategoriak

6.8.7. Lurrazaleko uren babesa

1. Definizioa

Antolamendu-kategoria hau EAEko ibai eta errekek eta hauen babes-zonak osatzen dute. Zona hau behin betiko ezarriko du EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak. LAP hau onartzen ez den artean, Lurralde Antolamenduko Batzordeak horretarako erabili ohi dituen babes-zerrendak erabiliko dira.

2. Irizpide orokorra

Zona hauetan jarduteko irizpidea uren kalitatearen iraunarazpena ahalbidetzean, ubideen eta urbazterren okupazioa edo aldakuntza saihestean eta arrisku naturalen ondoriozko kalteak minimizatzean datza.

3. Bultzatu beharreko jarduerak

Antolamendu-kategoria honetan kontserbazio-jarduerak, ingurugiroa hobetzeko jarduerak eta ingurunearen ezagutza hobetzera, herrien ur-hornidura bermatzera, kalitatea hobetzera eta arrisku naturalak minimizatzen zuzendutako azpiegitura hidraulikoak bultzatuko dira.

4. Jarduera onargarriak

Espreski debekatuta ez dauden beste jarduera guztiak, jolas-jarduera zabalak izan ezik, garapen-plangintzak arautuko ditu.

5. Jarduera debekatuak

Debekatuta daude nekazaritza-industriak, hondakindegia eta zabortegiak eta eraikuntza-mota guztiak.

Artezpideen testuan EAEko ibaiertzaketa errekaertzak Antolatzeko LAParen funtsezko zehaztapen gisa definitzen da sare hidrografikoa babesteko zona edo zerrendak ezartzea EAEko ibaien, erreken eta urtegien ertzetako derrigorrezko eraikuntza-erretiroen lerroak finkatzearen bidez.

Gisa berean ezarri da aldi batean, EAEko ibaiertzaketa errekaertzak Antolatzeko LAP behin betiko onartzen den artean, plangintza orokorrak eta hirigintzakoak kontuan izango dituela Euskal Herriko Lurralde Antolamenduko Batzordeak erabiltzen dituen ertzak babesteko eraikuntza-erretiroen irizpideak. Irizpide horiek hasieran bat zetozen artezpideak onartzeko hasierako agirian ezarritakoarekin, eta zehazkiago, "EAEko Isurialde Kantauriarreko lurrazaleko Ibaien Ubideen Ertzak Antolatzeko LAParen Aurrelaburpena" agirian, 1993ko abendukoan, xedatutakoarekin. Ondoren bereziaz onartu ziren 1998ko apirilaren 2an, jada hasierako onarpena zuen LAP honetan oinarrituta. Irizpide horiek aurrekarien 2.4. atalean zehaztu ditugu.

2.2. UREN LEGERIA

Ura aprobetxatzeko eta kudeatzeko legeria-markoa 1985eko Uren Legeak, 1996ko apirilaren 16ko Herri Jabari Hidraulikoaren Araudiak eta uztailaren 19ko 927/88 Errege Dekretuak, Uraren Administrazio Publikoari eta Plangintza Hidrologikoari buruzkoak, osatzen dute.

Legearen helburua herri-jabari hidraulikoa, uraren erabilera eta Konstituzioan zedarritutako aginpideen jarduketa arautzea da.

Marko horren barruan eta ibaietako ubideei helduz, Uren Legeak herri-jabari hidraulikotzat jotzen ditu korrante naturalen, jarraien eta etenen, ubideak. Aitzitik, jabari pribatutzat jotzen ditu noizean behin euri-ura izaten duten ubideak, betiere, beren jatorritik jabari partikularreko lursailak igarotzen dituenean.

Kontuan hartu beharreko lehenengo alderdia ubidearen mugaketa da. Horri dagokionean, Uren Legeak korrante jarrai edo eten baten ubide naturala edo ibilgua gehienezko ohiko ur-goraldietan urak estalitako lur-eremu gisa definitzen du.

Ildo horretatik, Herri Jabari Hidraulikoaren Araudiak, bere 4. artikuluan gehienezko ohiko ur-goraldiaren emaria bere erregimen naturalean elkarren hurreneko azken 10 urteetan izan diren eta korrontearen portaera hidraulikoaren adierazgarri diren gehienezko emarien batez besteko gisa definitzen du.

Hona hemen kontuan izan beharreko beste hainbat kontzeptu:

Erriberak:

Beheko ur-mailaren gainetik dauden ubide publikoen aldeetako zerrendak.

Ertzak:

Ubideen mugakide diren lur-eremuak.

Ertz gisa definitu ditugun zona horiek Lurraldearen Arloko Plan honen ARAUDIARI atxikitakoak dira.

Uren Legeak ertzen barruan ubide-zabalera mugatu ostean kontuan hartzeko lehen erreferentzia gisa erabilgarri izango diren bi zona definitzen ditu. Hona hemen bi horiek:

Zortasun-zona: Herri-erabilerarako 5 metroko zabalera duena, Herri Jabari Hidraulikoaren Araudiaren arabera arautzen dena.

Jagoletza-zona: 100 metroko zabalera, lurzorua erabilera eta jardueren garapen baldintzatua izango dituen.

Horiatarako Herri Jabari Hidraulikoaren Araudiak ezartzen dituen mugapenak hartuko dira kontuan. Honakoak:

Zortasun-zona:

- Iragaite-zona gisa hartzen da eta bertan salbamenduaren, arrantzaren, lehorreratzearen eta ubidearen zaintzaren inguruko jarduerak ahalbidetzen dira.
- Jabeek bertako lurra landu ahal izango dute, ibaibidea oztopatzen ez den bitartean behintzat.
- Eraikitzea debekatuta dago, Arroko Erakundeak oso kasu justifikatuetan baimena ematen duenean izan ezik.
- Zona hau arrazoi topografikoak, hidrografikoak direla-eta edo emakiden bidez aldatu ahal izango da; baina betiere berariaz justifikatzen bada.

Jagoletza-zona:

- Honako erabilera hauek arautzen dira: erliebearen aldaketa, aleen erauzketa, behin betiko edo behin-behineko eraikuntzak, eta ur-boladen erregimena alda dezakeen beste edozein erabilera.
- Zortasun-zonan bezala, bokalen, urtegien inguruko eremuetan edo baldintza topografikoek hala eskatzen dutenean aldaketak egin ahal izango dira. Betiere Arroko Erakundeak araututa.

Horri dagokionean Legeak Konfederazio Hidrografikoen esku uzten du lurzoruaren erabilerak baimentzeko ahalmena, edozein irizpideren gainetik interes publikoaren edo hirugarrenen kaltetan ibaibide naturalean ez eragiteko baldintzarekin.

T= 500 urteko errepika-denborari dagokion ur-bolada dela eta urpean gera daitezkeen lursailei dagokienean, Legeak ezartzen du ohikoak ez diren ur-gorakadak direla eta urpean geldi daitezkeen lursailek lehendik zuten titulartasunari eutsiko diotela.

Bestalde, Gobernuak dekretuz pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko irizten dituen mugapenak ezarriko ditu urpean geldi daitezkeen lursailen erabilerari dagokionean. Gainera, autonomia-erkidegoek aurretiko araudien arau gehigarriak ezarri ahal izango dituzte.

Kaltetutako laku, aintzira edo urtegiei dagokienean kontuan hartu beharreko ingurunea gehienezko ohiko ur-goraldiak direla eta lortutakoa izango da.

2.3. ITSASERTZEN LEGERIA

Itsasadarren eta itsasertzeko zerrendan kokatutako ibaibideen ingurune espazialean LAP honetan barne hartutako ertzen antolamendu-irizpideen aplikazioa, dagokion moduan, Itsasertzaren Legeriatik eratorritako araudiaren bidez koordinatuko da. LAParen dokumentazio grafikoan, horretarako adierazi ditugu dagozkion itsasoko eta lehorreko herri-jabariaren mugabanaketa-lerroak.

Dena dela eta LAPak erabilitako eskala (1:25.000) kontuan izanik, mugabanaketa zehatzak jakiteko beharrezkoa izango da dagozkien mugabanaketa-proiektuetara jotzea.

Itsasertzen Legeak, itsasoko eta lehorreko herri-jabariaren ondoko lursailei dagokienean, honako zortasun hauek definitzen ditu:

- Babes-zortasuna: itsasoko erriberaren barne-mugatik lurraren barnealdera doan 100 metroko zona dugu.
- Igarobide-zortasuna: itsasoko erriberaren barne-mugatik lurraren barnealdera doan 6 metroko zerrenda dugu.
- Itsasorako sarbiderako zortasuna: Itsasertzen Legeak ezartzen duenaren arabera, itsasoko eta lehorreko herri-jabariaren ondoan dauden eta horien mugakide diren lurri dagokie. Luzera eta zabalera sarbidearen izaerak eta helburuak eskatzen dutenaren arabera izango da.

Horiatarako Itsasertzen Legeriak ezartzen dituen mugapenak hartu beharko dira aintzat.

2.4. AURREKARIAK

2.4.1. LAP IDAZTEKO PROZESUA

LAParen agiri hau lantze-prozesu luze baten ondorio da. EAEko isurialde kantauriarreko arro hidrografikoei bakarrik badagokie ere, azterketarako prozesu metodologikoa orain EAEko Isurialde Mediterraneoarreko LAParen garapenean ari dira aplikatzen. Gisa horretan lurralde osoaren antolamendua osatuko da.

LAParen agiri hau LAAen Hasierako Onarpenaren agiria (1994ko urtarrilekoa) eta EAEko Isurialde Kantauriarreko Lurrazaleko Ibaien Ubideen Ertzak Antolatzekeo LAParen Aurrelaburpena (1994koa) abiapuntutzat dituen idazketa-prozesu baten ondorio da eta aurrelaburpena jendaurrean jarri zenean egindako arrazoibideetan eta Ingurugiro Sailordetzak prestatutako txostenean egindako iradokizunen azterketa hartzen du barne.

Halaber, agiria idazteko Uren Legean, Iparra III Plan Hidrologikoan, Uholdeen Prebentziorako Plan Integralean (UPPI), Gipuzkoako Fako Erkidegoko Ibaien Azterketan, Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailordetzak ingurune fisikoari buruz egindako hainbat azterketatan, Gipuzkoako Uren Lurralde Zerbitzuaren epe labur edo luzerako egite-aurreikuspenetan, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak egindako EAEko zubiei buruzko azterketan eta, azkenik, udaletako hirigintza-plangintzetan barne hartutako alderdi informatibo eta normatibo guztiak hartu dira kontuan.

2.4.2. LAAen HASIERAKO ONARPENAREN AGIRIA

LAAen hasierako onarpenaren agirian barne hartutako parametroak eta Ertzak Antolatzeko LAParen Aurrelaburpenean islatutakoak izan dira Euzko Autonomi Lurralde Antolamenduko Batzordeak orain arte ibaibideen araberako eraikuntza-erretiroak arautzeko erabilitakoak.

Ondoren gehitu ditugu LAAen hasierako onarpenaren agiriaren 8. kapituluko 8.4.2.D. eta 8.5.11.9. epigrafeetan jasotako zehaztapenen erreferentzia.

EAEko LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO ARTEZPIDEAK
HASIERAKO ONARPENAREN AGIRIA (1994ko URTARRILA)
8.4.2.D. eta 8.5.11.9. EPIGRAFEAK

8. INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDUA

4. INGURUNE FISIKOAREN ELEMENTU ETA PROZESUEI ETA JARDUEREN KONTROLARI BURUZKO ARTEZPIDE OROKORRAK

4.2. Ingurune Fisikoaren Elementu eta Prozesuei buruzko Artezpide Orokorrak.

D. LURRAZALEKO UREN TRATAMENDUA

d.1. Epigrafe honek Ingurugiro Sailordetzako Uren Kalitatearen Kontrolerako Lagin Sarean barne hartutako ubideei dagokien kartografian definitutako urtegi, ibai eta errekekiko mugakide diren eta lur urbanizaezin, urbanizagarri eta hiri-lur gisa sailkatu diren lurren antolamendua du aztergai. Horri dagokionean,

* Laku, aintzira edo urtegi izango dira Euskal Autonomia Erkidegoan dauden guztiak.

* Ibai izango dira honakoak:

Araban: Araia, Ayuda, Barron, Barrundia, Baia, Ebro, Ega, Inglares, Iskiz, Izoria, Omecillo, Tumecillo, Vadillo, Zadorra eta Zaia.

Bizkaian: Aguera, Altube, Arratia, Asua, Artibai, Barbadun, Butroe, Kadagua, Karrantza, Ibaizabal, Lea, Nerbioi eta Oka.

Gipuzkoan: Agauntza, Araxes, Bidasoa, Deba, Leizaran, Oiartzun, Oria, Urola eta Urumea.

* Erreka izango dira: Erreferentziazko kartografian definitu diren eta ibaien zerrendan barne hartu ez diren ibai-ubide guztiak.

Lurraldearen planek LAA hauek proposatutako sare hidrografikoa hemen aintzat hartu ez diren lurrazaleko ubideetara zabaldu eta hedatu ahal izango dute. Udal-plangintzari dagokio sare hidrografikoaren mugak finkatzea eta bere babes-zonak eskala egokian ezartzea.

d.2. Urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruan Lurrazaleko Urak Babesteko Antolamendu Kategoriarako ezarritako zehaztapenak aplikatuko dira, 5.11.9 artezpideak jasotzen duenaren arabera. Antolamendu-kategoria hau adierazitako elementuek eta horiei dagokien babes-zonak osatzen dute. Zona hori, hurrenez hurren, ibaien eta erreken ubideen alde banatuko 50 eta 25 metroko lurzoru-zerrendek eta aintzira eta urtegien inguruko 200 metroko zabalerako lursail-koroa batzuek osatuko dute. Horiek ohiko ur-bolada handienetan urak duen gehienezko mailatik edo gehienezko urtegi-mailatik abiatuta neurtuko dira.

d.3. Urbanizagarri edo urbanizatzeko egoki gisa sailkatutako eta sare hidrografikoarekiko mugakide den lurzoruan, udal-plangintzak Lurrazaleko Urak Babesteko zona bat ezarriko du ibaiaren ubidearekiko muga eraikinek duten gehienezko lerrokatzearen eta uren kanpoko gehienezko lerroaren artean. Ondoren zatika ikusiko dugun gisan, zerrenda horiek urbanizaezina den lurzorurako ezarri diren zerrendek baino entitate gutxiago dute:

a. Arabako Lurralde Historikoa, Aramaio eta Aiara eskualde-egiturako herriak (Laudio, Amurrio, Aiara, Okondo eta Artziniega) izan ezik: Lurrazaleko Urak Babesteko zona ondoren adierazitako zabalera zerrendek osatuko dute:

Aintzira eta urtegietan:	50 metro
Ibaietan:	30 metro
Erreketan:	20 metro

b. Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoak eta Arabako gainerako zatia: lurrazaleko urak babesteko zonak dimentsio berdinak izango ditu eta kasu honetan ondoren adierazitako zerrendetan kokatu ezin ziren urbanizazio-elementuak (bideak eta abar) sartu ahal izango dira:

Aintzira eta urtegietan:	30 metro
Ibaietan:	15 metro
Erreketan:	10 metro

d.4. Lurzoru urbanizagarrian Lurrazaleko Urak babesteko Zona espazio libreen-berdeguneen sistemako izaera izango du. Hori derrigorrezko eta doako lagapen gisa lortu ahal izango da, lurzoru urbanizagarriaren mugakide den sektorearen kargura.

d.5. Hiri-lurzorukoak diren eta sare hidrografikoarekin mugakide diren lurretan, eta dagoen antolamenduari eusteko beharrezkoa denean, udal-plangintzak lurzoru urbanizagarriko edo urbanizatzeko egokirako d3 atalean adierazitako babes-zerrenden zabalera murriztu ahal izango du, betiere murrizketa hori eta lurzoruaren helburua justifikatu ondoren. Nolanahi ere den, Uren Legeak ezarritako zortasunerako 5 metro linealei eutsi egingo zaie.

d.6. Udal-plangintzak, Uren Legean eta hori garatzen duen araubidean ezarritakoari jarraiki, lurzoru urbanizagarri eta urbanizaezinerako, ertzen bi aldeetan lurzoruaren erabilerak 100 metro arte baldintzatuta dituen Lurrazaleko Urak Babesteko Zona zabaldu ahal izango du, ubideen berariazko ezaugarrien eta udalerraren ur-masen arabera eta arrisku naturaleko irizpideak eta Eusko Jaurlaritzako "Uholdeen Prebentziorako Plan Integralaren" aholkuak kontuan izanik.

d.7. Isurialde kantauriarreko Sare Hidrografikoaren antolamendua isurialde kantauriarreko ibaietako ubideen ertzak antolatzeke lurraldearen arloko planak xedatuko du. Salbuespen gisa lurraldearen arloko plan horrek, ibaitarte jakin batzuen berariazko ezaugarriak ikusita, eremu horietan lehenago aipatutako ubideen babes-zerrendak murriztu ahal izango ditu.

d.8. Oro har, EAEko lurrazaleko baliabide hidriko guztietarako, edozein ur-aprobetxamendu eman baino lehen, froga bidez ziurtatu beharko da gutxieneko emari ekologikoari eutsiko zaiola.

d.9. Debehatuta dago itsasoan, herri-ubideetan, urtegietan, ureztatze-erretenetan edo lurpeko akuiferoetan urak poluitu eta herritarren osasunari edo aprobetxamenduei kalteak eragin diezazkieketen konposizio kimiko edo fisikoa edota eduki bakteriologikoa duten urak zuzenean edo zeharbidez isurtzea. Isurkiak sor ditzakeen edozein jardueratarako lizentzia lortu ahal izateko, sare orokorrera zuzenean konektatzen direnak izan ezik, lurrazaleko, lurpeko edo itsasoko urak ez poluitzeko moduko tratamendua justifikatu beharko da. Hondakin-uren tratamenduak ingurune hartzailearen autodepurazio-ahalmena errespetatu beharko du, emaitzazko uren kalitatea destinatzen direneko erabilerei exiji dakiekeen kalitate-arauen barruan egon dadin. Herri-ubideen kasuan, kalitate hori beren legezko sailkapenak ezarritako mugetara egokituko da.

5. INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDU-KATEGORIEN ARTEZPIDE PARTIKULARRAK: LURRALDE-EREDUA

5.11. Lurzoru urbanizaezinaren antolamendu-kategoriak

5.11.9 (S) LURRAZALEKO URAK BABESTEKO AREAK

1. Definizioa

Kategoria honek Ingurugiro Sailordetzako Uren Kalitatearen Kontrolerako Lagin Sarean barne hartutako ubideei dagokien kartografian definitutako urtegi, ibai eta errekekiko mugakide diren eta lur urbanizaezin, urbanizagarri eta hiri-lur gisa sailkatu diren lurren antolamendua du aztergai. Horri dagokionean,

* Laku, aintzira edo urtegi izango dira Euskal Autonomia Erkidegoan dauden guztiak.

* Ibai izango dira honakoak:

Araban: Araia, Ayuda, Barron, Barrundia, Baia, Ebro, Ega, Inglares, Iskiz, Izoria, Omecillo, Tumecillo, Vadillo, Zadorra eta Zaia.

Bizkaian: Aguera, Altube, Arratia, Asua, Artibai, Barbadun, Butroe, Kadagua, Karrantza, Ibaizabal, Lea, Nerbioi eta Oka.

Gipuzkoan: Agauntza, Araxes, Bidasoa, Deba, Leizaran, Oiartzun, Oria, Urola eta Urumea.

* Erreka izango dira: Erreferentziazko kartografian definitu diren eta ibaien zerrendan barne hartu ez diren ibai-ubide guztiak.

Antolamendu-kategoria hau adierazitako elementuek eta horiei dagokien babes-zonak osatzen dute. Zona hori, hurrenez hurren, ibaien eta erreken ubideen alde banatako 50 eta 25 metroko lurzoru-zerrendek eta aintzira eta urtegien inguruko 200 metroko zabalerako lursail-korua batzuek osatuko dute. Horiek ohiko ur-bolada handienetan urak duen gehienezko mailatik edo gehienezko urtegi-mailatik abiatuta neurtuko dira.

Lurraldearen arloko planek LAA hauek proposatutako sare hidrografikoa hemen aintzat hartu ez diren lurrazaleko ubideetara zabal eta heda dezakete. Udal-plangintzari dagokio sare hidrografikoaren mugak finkatzea eta bere babes-zonak eskala egokian ezartzea.

2. Irizpide orokorra

Zona hauetan jarduteko irizpidea uren kalitatearen iraunarazpena ahalbidetzean, ubideen eta urbazterren okupazioa edo aldakuntza saihestean eta arrisku naturalen ondoriozko kalteak minimizatzean datza.

3. Jarduera bultzatuak.

Antolamendu-kategoria honetan ingurugiroa artatzeko eta hobetzeko jarduerak bultzatuko dira.

4. Jarduera onargarriak.

Jarduera zientifiko-kulturalak eta ibilaldien eta kontenplazioaren ingurukoak onartuko dira, baita bainua eta uretako jarduerak ere berariaz debekatzen ez den lekuetan behintzat.

Isurialde Kantauriarreko Ibaien Ubideetako Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak, eta hori ezean udal-plangintzak, arautuko du kategoria honetan onargarriak diren erabileren garapena, ezarritako irizpide orokorraren arabera.

Udal-plangintzak uren babeserako eta aprobetxamendurako eraikuntzak eta instalazioak eraikitzea bakarrik ahalbidetuko du. Beste erabilera batzuei lotutako eraikinak eta instalazioak nahitaez kategoria honetatik kanpo kokatu beharko dira, baita golf-zelaiaren instalazioak ere.

Ehiza eta arrantzari dagokienean indarrean dagoen legeriak ezarritako kontrolak eta mugapenak gauzatuko dira. Erauzketa-jarduerak udal-plangintzak ezarritako mugapenak izango dituzte.

5. Jarduera debekatuak

Debekatuta egongo dira gainerako erabilera eta jarduera guztiak.

2.4.3. LAParen AURRELABURPENA

1993ko abenduan Eusko Jaurlaritzako Lurraren Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren Lurraldearen Antolamenduaren Zuzendaritzak "EAEko Isurialde Kantauriarreko Lurrazaleko Ibaien Ubideen Ertzak Antolatzeko LAParen Aurrelaburpena" izeneko agiria idatzi zuen EAEko Isurialde Kantauriarreko sare hidrografikoko ertzen antolamenduari dagokionean LAAen hasierako onarpenaren agirian jasotako zehaztapenak garatzeko tresna gisa.

LAParen Aurrelaburpenaren agiri hau izan da Euskal Herriko Lurralde Antolamenduko Batzordeak orain arte isurialde kantauriarreko sare hidrografikoko ertzetako lursailen hirigintza-erregulaziorako erabilitako irizpideen argumentuzko euskarri.

Honako hauek ziren aurrelaburpenaren funtsezko zehaztapenak:

Planaren aplikazio-eremua

LAParen aurrelaburpenean LAAen erreferentziako kartografian adierazitako ibai eta erreken alde banatako 100 metroko eragin-eremuak arautu ziren generikoki, nahiz eta mapetan ibaiak, 1. eta 2. mailakoak, bakarrik adierazi zehatz.

Ubideak babesteko lerroak

Honako lerro hauek definitu ziren:

- EEL : Egungo Eraikuntza Lerroa
- AEL : Araututako Eraikuntza Lerroa.
Lurzoru urbanizagarri eta urbanizaezinari dagokionean LAAek planteatutako eraikuntza-lerroa.
- GEL.: Gomendatutako Eraikuntza Lerroa.
Zona jakin batzuetarako Eskema Normatiboetan proposatutako, izaera loteslerik ez duena.

Ubideak babesteko lerroak

- Hiri-lorzoruan igarobide-zortasunaren lerro bat finkatu da ubidetik 5 metrora eta GEL zabalago batzuk planteatzen dira.
- Lurzoru urbanizagarrian babes-zerrenda bat definituko da AEL bat finkatzearen bidez:

- . ubidetik 30 metrora ibaietan
- . ubidetik 20 metrora erreketan

Ubidetik 15 metro baino gehiagora urbanizazio-elementuak jarri ahal izango dira.

- Urbanizaezina den lurzoruan babes-zerrenda bat definituko da AEL bat finkatzearen bidez:

- . ubidetik 50 metrora ibaietan
- . ubidetik 25 metrora erreketan

Salbuespen izango dira ingurune fisikoa babesteko zona bereziak, izan ere, horietan AEL zona horien mugapenen menpekoa izango da.

Zehaztapen horiek eduki grafikoen hiru serietan islatuko dira. Hona serieak:

Mapen bilduma, 1/25.000 eskalako mapena, aztertutako ubideen definizio planimetrikoa izango duena eta fitxen bidez ingurune fisikoa babesteko zona bereziak definituko eta kokatuko dituenak. Kategoria hauetan banatuko dira:

- A. lehentasunezko interes ekologikoa duten zonak.
- B. interes zientifiko-kulturala duten zona eta inguruneak.

- C. higadura- edo/eta lerradura-arriskua duten zonak.
- D. presazko berreskuratzea behar duten zona eta inguruneak.

Mapen bilduma, 1./12.500 eskalako mapena, aztertutako ubideen definizio planimetricoa eta ondoren adierazitako lurzoru-moten arabera hirigintza-sailkapenari dagokionean indarrean dagoen adierazpen grafikoa izango dituena.

- hiri-lurzorua
- lurzoru urbanizagarria
- lurzoru urbanizaezin
- sistema orokorrak

Aztertutako ubideen irudikapen grafiko sinbolikoa izango duen planoen bilduma, 1/10.000 luzerako eskalako eta 1/1.000 zeharkako eskalako, eta proposatutako eskema normatiboak.

Plano horietan honako elementuak, ubidearen lerroaren irudikapen sinbolikoari dagozkionak, adierazten dira grafikoki:

- a) Uholdeen Prebentziorako Plan Integralaren (UPPIaren) Aurrelaburpenean kalkulaturako uholde-lerroak.
- T.10. 10 urtetan izan den gehienezko ur-goraldia
 - T.100. Belaunaldi batek oroitzen duen ur-goraldia
 - T.500. Ur-goraldi katastrofikoa

b) Ingurune fisikoa babesteko zonak.

c) Indarrean dagoen plangintza.

Horietan oinarritutakoa da lerroak finkatzearen bidez proposatutako Eskema Normatiboa.

- EEL Egungo Eraikuntza Lerroa
- GEL Gomendatutako Eraikuntza Lerroa
- AEL Araututako Eraikuntza Lerroa

Halaber ubideetan zehar honakoak adierazten dira:

- Dauden ubiderapenak
- Aurreikusitako ubiderapenak
- Ubideen estaldurak
- Dagoen ubide-zabalera duten puntuak

- Aurreikusitako ubide-zabalera duten puntuak
- Zubiak

2.4.4. LAParen AURRELABURPENA JENDAURREAN JARRI ZENEAN IZANDAKO ERANTZUNAK

EAEko Isurialde Kantauriarreko Lurrazaleko Ibaien Ubideen Ertzak Antolatzeko LAParen Aurrelaburpena jendaurrean jarri zenean (1994an) honako iradokizunak, txostenak eta arrazoibideak egin ziren:

Durangoko Udala.	(1. iradok.)
Amorebieta-Etxanoko Udala.	(2. iradok.)
Debako Udala.	(4. iradok.)
Arratzuko Udala.	(5. iradok.)
Lasarte-Oriako Udala.	(6. iradok.)
DEBEGESA, Deba Beherearen Garapen Ekonomikorako Sozietatea	(7. iradok.)
Derioko Udala	(8. iradok.)
Billabonako Udala.	(9. iradok.)
Ordiziako Udala.	(10. iradok.)
Balmasedako Udala.	(11. iradok.)
Legazpiko Udala.	(12. iradok.)
Azpeitiko Udala.	(13. iradok.)
Ondarroako Udala	(14. iradok.)
Astigarragako Udala.	(15. iradok.)
Arteako Udala.	(16. iradok.)
Getxoko Udala.	(17. iradok.)
Alegiako Udala.	(18. iradok.)
Eskoriatzako Udala.	(19. iradok.)
Zestoako Udala.	(20. iradok.)
Erandioko Elizateko Udala.	(21. iradok.)
Sopuertako Udala.	(22. iradok.)
Arabako Foru Aldundia.	(23. iradok.)
Ataungo Udala.	(24. iradok.)
Andoaingo Udala.	(25. iradok.)
Tolosako Udala.	(26. iradok.)
Beasaingo Udala.	(27. iradok.)
Bizkaiko Foru Aldundia.	(28. iradok.)
Sopelako Udala.	(29. iradok.)
Deba Garaiko Mankomunitatea.	(30. iradok.)
Bilboko Udala.	(31. iradok.)
Galdakaoko Udala.	(32. iradok.)
Berriatuko Udala.	(33. iradok.)
Laudioko Udala.	(34. iradok.)

Barrikako Udala.	(35. iradok.)
Bergarako Udala.	(36. iradok.)
Lemoako Udala.	(37. iradok.)
Ingurugiro Sailordetzako balorazio-txostena	(1995eko maiatza)

Tokiko auzi puntualak alde batera utzita, udalek aurkeztutako iradokizunak nagusiki agirian agertzen den lurzoruaren sailkapena eta erreala bat ez etortzearen ingurukoak dira. Horiek bat ez etortzearen kausa orokorra aurrelaburpena prestatzearen eta iradokizunak aurkeztearen artean igaro den denbora-tarte handia da. Izan ere, aldi horretan zehar lurzoruaren sailkapenean hainbat aldaketa gertatu dira.

Debako Arrotik egindako iradokizunek, txostenek eta arrazoibideek garapen berriko lurzoru urbanizagarriaren sektoreetarako ezarritako mugapenak adierazten dituzte. Horiek arrazoitzen dutenez, hori aplikatzeak jada programatutako eragiketa batzuk bideraezin bihurtuko lituzke eta 5 metroko igarobide-zortasunak hiri-zonetan dauden eraikuntzetan eragina izango luke, antolamendutik kanpo gelditzeagatik horiek finkatzea ezinezkoa izango bailitzateke.

Debegesak eta Deba Garaiko Mankomunitateak igorritako arrazoibideek zalantzan jartzen dute aurrelaburpenaren agiriaren balio orokorra, nahiz eta ez dituzten hautabidezko irtenbide zehatzak proposatzen.

Azkenik, Ingurugiro Sailordetzaren txostenean agiriaren aplikazio-eremua sare hidrografiko osora hedatzeko eta ingurugiroaren eta hidraulikaren inguruko aldagaien eta jada haztatu diren hirigintza-izaerako araberako LAParen espektro normatiboa zabaltzeko beharra azpimarratzen da.

2.5.EUSKAL HERRIKO LURRALDE-ANTOLAMENDUKO BATZORDEAK
LURRAZALEKO UREN TRATAMENDUARI DAGOKIONEAN 1998ko
APIRILAREN 2ko BILKURAN ONARTUTAKO IRIZPIDEAK

Euskal Herriko Lurralde Antolamenduko Batzordearen 2/1998 bilkuran, Gasteizen apirilaren 2an egindakoa, kideen gehiengo osoa osatzen zuten bertaratutako gehiengo osoaren bidez, besteak beste honako hitzarmena adostu zen:

“26/1997 Dekretuan, otsailaren 11koan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak behin betiko onartzen dituzenean, adierazitakoaren argitara, Euskal Herriko Lurralde Antolamenduko Batzordeak honakoa adostu du lurrazaleko uren tratamenduari dagokionean:

I.- Plangintza orokorraren berri ematerakoan batzorde honek erabili dituen isurialde kantauriarrean ibaien eta erreken ertzak antolatzeko irizpideak ondoren adierazitakoekin ordezteak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren (Isurialde Kantauriarrekoaren) agiriari dagokionean emandako oniritziaren argitara:

1.- Irizpideak

“Lurrazaleko uren tratamenduari” dagokion plangintza orokorra aztertzerakoan Euskal Herriko Lurralde Antolamenduko Batzordearen irizpideak I. eranskin gisa egiaztatutakoekin batera doan agiriaren barne hartutako edukiak izango dira. Horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren (Isurialde Kantauriarrekoaren) behin betiko agiriaren laburpen bat izango dira eta gisa honetan aplikatuko dira:

a) “Landa-eremuko ertzetarako berriazko araudia”, lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako lurretakoa.

b) “Hirigintza-garapen berriak egiteko potentziala duten ertzetarako berriazko araudia”, lurzoru urbanizagarri edo urbanizatzeko egoki gisa sailkatutako lurretakoa, baita lurzoru urbanizagarri gisa birsailkatzen diren urbanizagarri ez diren lurrei edo hiri-lurzoruari dagokienez ere.

2.- Aplikazio-eremua.

Irizpideak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Bidasoa, Urumea eta Oria ibaien arroen zatiei; Bizkaiko Lurralde Historikoko Kalera, Karrantza, Agera ibaien arroen zatiei; Jaizubia, Oiartzun, Añorga, Inurritza, Urola, Narrondo, Deba, Saturraran, Artibai, Lea, Oka, Sollube, Estepona, Butroe, Gobela, Asua, Galindo, Barbadun eta Nerbioi eta Ibaizabal ibaien arro osoei eta zuzenean Gipuzkoako eta Bizkaiko itsasertzean itsasoratzen diren erreken gainerako arro txikiei aplikatuko zaizkie.

II.- Isurialde mediterraneoarrari dagokionean:

1.- Irizpideak

“Lurrazaleko uren tratamenduari” dagokion plangintza orokorra aztertzerakoan Euskal Herriko Lurralde Antolamenduko Batzordearen irizpideak II. eranskin gisa egiaztagiri honekin batera doan agirian barne hartutako edukiak izango dira. Irizpide horiek aipatutako artezpideen hasierako onarpenaren agirian islatutakoak dira.

2.- Aplikazio-eremua.

Irizpideak Mediterraneoko arroan eta zehatzago Puron, Omecillo, Baia, Zadorra, Araia, Ebro, Inglares, Ega ibaiaren EAeko zatietan aplikatuko dira.

III.- Aipatutako irizpideak derrigorrez aplikatu beharko dituzte Euskal Herriko Lurralde Antolamenduko Batzordeak nahiz ondorengo hirigintza-tresnak formulatzeaz eta onartzeaz arduratzen diren administrazioek eta organoek:

- A) Plan orokorrak eta plangintzaren arau subsidiarioak eta osagarriak.*
- B) Urbanizaezina den lurzoruaren tratamendu orokorra berrikustea eskatzen duten plangintza orokorraren aldaketak.*
- C) Urbanizaezina den lurzoria lurzoru urbanizagarri/urbanizatzeko egoki den lurzoru edo hiri-lurzoru gisa birsailkatzea eskatzen duten plangintza orokorraren aldaketak.*
- D) Plangintza orokorraren gainerako aldaketak, 28/1997 Dekretua, otsailaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak behin betiko onartzen dituen, indarrean sartu baino lehen hasiera onarpena lortu zutenak izan ezik.*
- E) 28/1997 Dekretua indarrean sartu zenean hasierako onarpenik ez zuten zatiko planak eta plangintza xeheaturako edo garapenerako gainerako tresnak.*

IV.- Data hori baino lehen behin betiko onartutako planak irizpide berrietara egokitu ahal izango dira aldaketarako beharrezko izapideei jarraiki.

V.- Adostasun hau udal guztiei eta gainerako lurralde-administrazio interesdunei jakinaraztea.

Eta hala ager dadin luzatzen eta sinatzen dut, bilkura honi dagokion akta onartu aurretik, Gasteizen, 1998ko maiatzaren 20an.”

I ERANSKINA

(Atalak LAPean duten zenbakiaren arabera adierazi dira)

B. ERTZEN KATEGORIZAZIOA

B.1. ERTZEN KATEGORIZAZIOA

II. Udal plangintzak lurzoru urbanizaezineko ubideen ertzetan "Lurrazaleko Urak Babesteko Lurzoru Urbanizaezina" kategoria ezarriko du, LAP honetatik eratorritako azpikategoriekin. Lurrazaleko Urak Babesteko Lurzoru Urbanizaezin horrek plan honen araudiaren F.1 atalaren 1. puntuaren definitutako zabalerak izango ditu ertz banatan.

Lurzoru horri Lurrazaleko Urak Babesteko kategoriarako artezpideek ezartzen dituzten erabilera-erregimenak aplikatuko zaizkio.

B.3. IBAIBIDEEN KATEGORIZAZIOA ARRO HIDRAULIKOEN IBAITARTEEN ARABERA

LAPean barne hartutako ibaibideak puntu bakoitzeko adar-arroaren azaleraren arabera 8 kategoriatako ibaitartetan banatzea ezarri da.

Zehatzago honako eskala hau proposatzen da:

Ibaitarteen kategoria	Adar-arroaren azalera (Km ²)
VI	$600 \text{ Km}^2 < A$
V	$400 \text{ Km}^2 < A \leq 600 \text{ Km}^2$
IV	$200 \text{ Km}^2 < A \leq 400 \text{ Km}^2$
III	$100 \text{ Km}^2 < A \leq 200 \text{ Km}^2$
II	$50 \text{ Km}^2 < A \leq 100 \text{ Km}^2$
I	$10 \text{ Km}^2 < A \leq 50 \text{ Km}^2$
0	$1 \text{ Km}^2 < A \leq 10 \text{ Km}^2$
00	$A \leq 1 \text{ Km}^2$

VI eta I arteko mailetako ibaitarteak 10 Km^2 baino gehiagoko adar-arroa duten ibaibideei dagozkie. Horien azterketa partikularra orrialde grafikoan bildumetan garatu dugu $1/25.000$ eskalara, hidraulikaren, ingurugiroaren eta hirigintzaren inguruko osagaiak kontuan izanik.

0 kategoriako ibaitarteak, 1 eta 10 Km^2 arteko adar-arroa duten ibaibideei dagozkienez, erreka edo erretena dute izena eta grafikoki planaren kartografian islatu ditugu, nahiz eta beren ertzen ezaugarriak ez izan berariazko azterketa xehe baten gai.

00 kategoriako ibaitarteak askotan aldizkakoak izaten diren eta Km² 1eko arrora iristen ez diren ibaibideei dagozkie, isurketa deitu ohi zaie eta ez dira LAParen kartografikoan grafikoki adierazi.

Hona hemen horiek xeheago:

A) Bizkaiko eta Arabako ibaiak

Hona ondoren zehatzago ibaibide nagusienak:

VI kategoriako ibaitarteak ($A > 600 \text{ km}^2$)

Nerbioi ibaiaren arroa

- Nerbioi, 0 - 24,4 km (Ibaizabalekiko elkargunea)

V kategoriako ibaitarteak ($400 < A \leq 600 \text{ Km}^2$)

Nerbioi ibaiaren arroa

- Nerbioi, 24,4 - 37,3 km (Larrunberekiko elkargunea).

Ibaizabal ibaiaren arroa

- Ibaizabal, 0 - 6,6 km

Kadagua ibaiaren arroa

- Kadagua, 0 - 14,6 km (Izalderekiko elkargunea).

IV kategoriako ibaitarteak ($200 < A \leq 400 \text{ Km}^2$)

Nerbioi ibaiaren arroa

- Nerbioi, 37,3 - 47,3 km (Palancarekiko elkargunea)

Ibaizabal ibaiaren arroa

- Ibaizabal, 6,6 - 22,8 km (S. Antoniorenkiko elkargunea)

Kadagua ibaiaren arroa

- Kadagua, 14,6 - 24,7 km (San Cristobal errekarikiko elkargunea)

III kategoriako ibaitarteak ($100 < A \leq 200 \text{ Km}^2$)

Artibai ibaiaren arroa

- Artibai, 0 - 2 km.

Karrantza ibaiaren arroa

- Karrantza, 0 - 1,8 km (Riosecorikiko elkargunea)

Barbadun ibaiaren arroa

- Barbadun, 0 - 6,5 km.

Butroe ibaiaren arroa

- Butroe, 0 - 19,5 km

Nerbioi ibaiaren arroa

- Nerbioi, 47,3 - 58,4 km. (Pagatzarekiko elkargunea)
- Altube, 0 - 10,7 km (Argaitzarekiko elkargunea)

Ibaizabal ibaiaren arroa

- Ibaizabal, 22,8 - 32,3 km (Solozabalekiko elkargunea)
- Arratia, 0 - 5,5 km (Indurirekiko elkargunea)

Kadagua ibaiaren arroa

- Kadagua, 24,7 - 36 km (EAEko muga)
- Herrerias, 0 - 6,4 km (Rodaiegarekiko elkargunea).
- Izalde, 0 - 1 km (Herreriasetikiko elkargunea).

II kategoriako ibaitarteak (50<A≤100 Km²)

Artibai ibaiaren arroa

- Artibai, 2 - 16,5 km (Urkorekiko elkargunea)

Kadagua ibaiaren arroa

- Herrerias, 6,4 - 10 km (Ibalzibarrekiko elkargunea).
- Izalde, 1 - 7,7 km (Okondo udalerriko Jandiola auzoa gurutzatzen duen errekarrekiko elkargunea).

Karrantza ibaiaren arroa

- Karrantza, 1,8 - 6 km (Presarekiko elkargunea)

Barbadun ibaiaren arroa

- Barbadun, 6,5 - 12 km (Limonekiko elkargunea)

Butroe ibaiaren arroa

- Butroe, 19,5 - 29,7 km (Caprincosekiko elkargunea)

Nerbioi ibaiaren arroa

- Nerbioi, 58,4 - 67,8 km
- Altube, 10,7 - 18 km (Ventillasekiko elkargunea)

Ibaizabal ibaiaren arroa

- Ibaizabal, 32,3 - 38,4 km (Puztinarekiko elkargunea)
- Arratia, 5,5 - 12,7 km (Gorbea errekarrekiko elkargunea)
- Elorrio, 0 - 5 km (Buztinarekiko elkargunea)

Galindo ibaiaren arroa

- Galindo, 0 - 1,6 km (Ballontirekiko elkargunea)

Aguera ibaiaren arroa

- Aguera, 0 - 2,5 km (Ubegiarekiko elkargunea)

Lea ibaiaren arroa

- Lea, 0 - 8 km (Telleria errekarrekiko elkargunea)

Asua ibaiaren arroa

- Asua, 0 - 8,5 km.

I kategoriako ibaitarteak ($10 < A \leq 50 \text{ Km}^2$)

Artibai ibaiaren arroa

- Artibai, 16,5 - 22,6 km (Aranbaltzekiko elkargunea)

- Urko, 0 - 6,8 km (Atibar eta Iteriagarra errekekiko elkargunea)

Lea ibaiaren arroa

- Lea, 8 - 20 km

Karrantza ibaiaren arroa

- Karrantza, 6 - 11 km (Peñarandarekiko elkargunea)

Barbadun ibaiaren arroa

- Barbadun, 12 - 14,5 km (Sopuerta udalerriko zubia)

Aguera ibaiaren arroa

- Aguera, 2,5 - 11 km

Asua ibaiaren arroa

- Asua, 8,5 - 15,3 km (BasoSaltzarekiko elkargunea)

Butroe ibaiaren arroa

- Butroe, 29,7 - 37 km (BI-121 errepideko zubia)

Nerbioi ibaiaren arroa

- Nerbioi, 67,8 - 76,5 km (Giturri errekarrekiko elkargunetik behera)

- Altube, 18 - 23,4 km (Etxebarria etxea, Urkabustaiz eta Zuia udalerrien arteko muga)

- Arnauri, 0 - 7 km (Larroñoko Alaneta errekarrekiko elkargunea)

Ibaizabal ibaiaren arroa

- Ibaizabal, 38,4 - 44,7 km (Lasartekorekiko elkargunea)

- Amorebieta, 0 - 3 km

- Arratia, 12,7 - 21,6 km (Unagarekiko elkargunea)

- Indusi, 0 - 9,5 km

- Mañaria, 0 - 5,4 km (Eriembekorekiko elkargunea)

- Solozabal, 0 - 5,6 km (Okarekiko elkargunea)

- Elorrio, 5 - 11,3 km (Lasartekorekiko elkargunea)

Estepana ibaiaren arroa

- Estepana, 0 - 5,3 km

Ea ibaiaren arroa

- Ea, 0 - 1,5 km (Albitxerrekarekiko elkargunea)

Kalera ibaiaren arroa

- Kalera, 0 - 10,2 km (Rebeludesekiko elkargunea)

Galindo ibaiaren arroa

- Galindo, 1,6 - 9,7 km (Madrarekiko elkargunea)

Gobela ibaiaren arroa

- Gobela, 0 - 3 km (Itzerekiko elkargunea)

Kadagua ibaiaren arroa

- Herrerias, 10 - 16,3 km

- Izalde, 7,7 - 15,9 km (Eskorretarekiko elkargunea)

0 kategoriako ibaitarteak ($1 < A \leq 10 \text{ Km}^2$)

LAParen informazio grafikoan adierazitako erreken multzoari dagozkio, berariazko identifikaziorik gabe.

00 kategoriako ibaitarteak ($A \leq 1 \text{ Km}^2$)

LAParen dokumentazio grafikoan barne hartzen ez diren gainerako erreka txiki edo aldizkako isurketen ibaibideei dagozkie.

B) Gipuzkoako ibaiak

VI kategoriako ibaitarteak ($600 \text{ Km}^2 < A$)

Bidasoa ibaiaren arroa

- Bidasoa, 0 (Santiago Zubiaren azpian dagoen itsasadarraren puntua) - 10,2 Km (Endararekiko elkargunea)

Oria ibaiaren arroa

- Oriá, 0 (A-8 autopistaren bidezubiaren azpian dagoen itsasadarraren puntua) - 28,1 Km (Asteasurekiko elkargunea)

V kategoriako ibaitarteak ($400 < A \leq 600 \text{ Km}^2$)

Oria ibaiaren arroa

- Oriá, 28,1 - 37,5 Km (Albisturrekiko elkargunea)

Deba ibaiaren arroa

- Deba, 0 (itsasoko bokalea, GI-638 errepidearen zubi azpitik 850 metro behera) - 19,4 Km (Maltzaga, Egorekiko elkargunea)

IV kategoriako ibaitarteak ($200 < A \leq 400 \text{ Km}^2$)

Urumea ibaiaren arroa

- Urumea, 0 (itsasoko bokalea, Kursaal Zubitik 150 metro behera) - 21,5 Km (Urruzunorekiko elkargunea)

Oria ibaiaren artoa

- Oria, 37,5 - 52,7 Km (Amundarainekiko elkargunea)

Urola ibaiaren artoa

- Urola, 0 (N-634ko zubi zaharraren azpian dagoen itsasadarraren puntua) - 26,6 Km (Ibaiederrekiko elkargunea)

Deba ibaiaren artoa

- Deba, 19,400 - 37,4 Km (San Prudentzio)

III kategoriako ibaitarteak ($100 < A \leq 200 \text{ Km}^2$)

Urumea ibaiaren artoa

- Urumea, 21,5 - 31,4 Km (Añarberekiko elkargunea)

Oria ibaiaren artoa

- Oria, 52,8 - 58,1 Km (Estandarekiko elkargunea)
- Leizaran, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 6,9 Km (Onlloko errekarrekiko elkargunea)
- Araxes, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 5,0 Km (Gaztelu erretenarekiko elkargunea)

Urola ibaiaren artoa

- Urola, 26,6 - 34,5 Km (Ormaola errekarrekiko elkargunea)
- Ibaieder, 0 (Urolarekiko elkargunea) - 1,5 (Errezilekiko elkargunea)

Deba ibaiaren artoa

- Deba, 37,4 - 42,2 Km (Aramaiorekiko elkargunea)
- Oñati, 0 (Debarekiko elkargunea) - 5,9 (Arantzazurekiko elkargunea)

II kategoriako ibaitarteak ($50 < A \leq 100 \text{ Km}^2$)

Oiartzun ibaiaren artoa

- Oiartzun, 0 (Pasaiaiko Portuko bokalea, portu-zerbitzurako zubiaren azpian dagoen itsasadarraren puntua) - 3,4 Km (Saroberekiko elkargunea)

Urumea ibaiaren artoa

- Añarbe, 0 (Urumearekiko elkargunea) - Añarbeko urtegia

Oria ibaiaren artoa

- Oria, 58,1 - 63,1 Km (Mutiloarekiko elkargunea)
- Leizaran, 6,9 - 30,2 (Nafarroarekiko muga)
- Araxes, 5,00 (Nafarroarekiko muga)
- Amezketa, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 2,6 Km (Intzaleiko errekarrekiko elkargunea)
- Agauntza, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 9,6 Km (Lauzti errekarrekiko elkargunea)
- Estanda, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 2,1 Km (Arriaranekiko elkargunea)

Urola ibaiaren artoa

- Urola, 34,5 - 47,6 Km (Altzolako errekarrekiko elkargunea)

- Ibaieder, 1,5 - 4,2 Km (Aratzekiko elkargunea)

Deba ibaiaren arroa

- Deba, 42,2 - 47,3 Km (Bustintegi erretenarekiko elkargunea)
- Ego, 0 (Debarekiko elkargunea) - 1,5 (Gorosta errekarrekiko elkargunea)
- Arantzazu, 0 (Oñatirekiko elkargunea) - 2,3 (Eguzkitza errekarrekiko elkargunea)

I kategoriako ibaitarteak ($10 < A \leq 50 \text{ Km}^2$)

Bidasoa ibaiaren arroa

- Endara, 0 (Bidasoarekiko elkargunea) - Endarako urtegia

Jaizubia ibaiaren arroa

- Jaizubia, 0 (Txingudiko Badiako bokalea, Amute zubitik 150 m. behera) - 3,4 (Ugalde erretenarekiko elkargunea)

Oiartzun ibaiaren arroa

- Oiartzun, 3,4 - 10,2 Km (Arditurri errekarrekiko elkargunea)
- Sarobe, 0 (Oiartzunekiko elkargunea) - 1,2 Km (Xenpelar errekarrekiko elkargunea)

Urumea ibaiaren arroa

- Urruzuno, 0 (Urumearekiko elkargunea) - 2,0 Km

Añorga ibaiaren arroa

- Añorga, 0 (Tximistarri kalako bokalea) - 2,0 Km (Ibaeta erretenarekiko elkargunea)

Oria ibaiaren arroa

- Oriá, 63,1 - 72,2 Km
- Artxodi, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 1,2 Km (Manterola errekarrekiko elkargunea)
- Santio, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 5,2 Km (Aiako San Pedro)
- Asteasu, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 5,0 Km
- Zelai, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 10,0 Km
- Basabe, 0 (Araxesekiko elkargunea) - 0,8 Km (Errotaran errekarrekiko elkargunea)
- Albiztur, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 5,0 Km
- Amezketa, 2,6 - 8,5 Km
- Bedaio, 0 (Amezketarekiko elkargunea) - 3,6 Km (Inpernu errekarrekiko elkargunea)
- Berostegi, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 0,6 Km (Bekoetxeko errekarrekiko elkargunea)
- Amundarain, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 8,2
- Urtxubi, 0 (Amundarainekiko elkargunea) - 2,0 Km
- Agauntza, 9,6 - 21,0 Km (Akaitz errekaekiko elkargunea)
- Estanda, 2,1 - 7,2 Km (Gesaltxo errekarrekiko elkargunea)
- Arriaran, 0 (Estandarekiko elkargunea) - Arriaran urtegia

- Sta. Lutzi, 0 (Estandarekiko elkargunea) - 5,0 Km (Urkiola errekarrekiko elkargunea)
- Ursuaran, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 6,2 Km (Atxu errekarrekiko elkargunea)
- Mutiloa, 0 (Oriarekiko elkargunea) - 2,2 Km (Zerain errekarrekiko elkargunea)

Inurritza ibaiaren arroa

- Inurritza, 0 (itsasoko bokalea, oinezko pasabidearen azpian dagoen puntua) - 2,5 Km (Ola errekarrekiko elkargunea)

Urola ibaiaren arroa

- Urola, 47,6 - 59,0 (Barrendiola erretenarekiko elkargunea)
- Altzolarats, 0 (Urolarekiko elkargunea) - 7,2 (Granada errekarrekiko elkargunea)
- Goltzibar, 0 (Urolarekiko elkargunea) - 1,0 (Zastarrain errekarrekiko elkargunea)
- Ibaieder, 4,2 - Ibaieder urtegia
- Errezil, 0 (Ibaiederrekiko elkargunea) - 6,6 (Zeabil errekarrekiko elkargunea)
- Aratz, 0 (Ibaiederrekiko elkargunea) - 3,4 (Erreka Gorrirekiko elkargunea)
- Katuin, 0 (Urolarekiko elkargunea) - 1,9 (Errasti errekarrekiko elkargunea)

Narrondo ibaiaren arroa

- Narrondo, 0 (Urola itsasadarrarekiko elkargunea) - 5,2

Deba ibaiaren arroa

- Deba, 47,3 - 54,8 (Egozibar errekarrekiko elkargunea)
- Kilimon, 0 (Debarekiko elkargunea) - 2,5
- San Lorenzo, 0 (Debarekiko elkargunea) - 1,5
- Ego, 1,5 - 7,2
- Aixola, 0 (Egoarekiko elkargunea) - 1,5
- Mallabia edo Zabaleta, 0 (Egorekiko elkargunea) - 0,6 (Berano errekarrekiko elkargunea)
- Ubera, 0 (Debarekiko elkargunea) - 2,2 (Atxotegi errekarrekiko elkargunea)
- Antzuola, 0 (Debarekiko elkargunea) - 4,2 (Antzinako errekarrekiko elkargunea)
- Angiozar, 0 (Debarekiko elkargunea) - 2,3 (Otzaileko errekarrekiko elkargunea)
- Urkulu, 0 (Oñatirekiko elkargunea) - Urkulu urtegia
- Oñati edo Ubao, 5,9 - 11,8 (Aldaba errekarrekiko elkargunea)
- Arantzazu, 2,3 - 10,2 (Billotza errekarrekiko elkargunea)
- Araotz, 0 (Arantzazurekiko elkargunea) - 1,2
- Aramaio, 0 (Debarekiko elkargunea) - 9,4 (Aspistiko errekarrekiko elkargunea)

Saturrarán ibaiaren arroa

- Saturrarán, 0 (itsasoko bokalea, GI-638 errepideko zubitik 700 metro behera) - 1,8 (Artzai errekarrekiko elkargunea)

0 kategoriako ibaitarteak ($1 < A \leq 10 \text{ Km}^2$)

LAParen informazio grafikoan adierazitako erreken multzoari dagozkio, berariazko identifikaziorik gabe.

00 kategoriako ibaitarteak ($A \leq 1 \text{ Km}^2$)

LAParen dokumentazio grafikoan barne hartzen ez diren gainerako erreka txiki edo aldizkako isurketen ibaibideei dagozkie.

F. BERARIAZKO ARAUDIA HIRIGINTZA-OSAGAIAREN KATEGORIZAZIOAREN ARABERA

F.1. LANDA-EREMUKO ERTZETARAKO BERARIAZKO ARAUDIA

1. Hirigintza-osagaiaren arabera landa-eremuko ertz gisa kategorizatutako ertzetan ubide publikoko mugabanaketa-lerroarekiko gutxienezko erretiro bat errespetatuko da. Erretiro hori honakoa izango da:

- 50 metrokoa urtegiatarako eta $A > 100 \text{ Km}^2$ -ko adar-arroa duten ibaitarteetarako (III, IV, V eta VI kategorietako ibaitarteetarako)
- 30 metrokoa $10 < A \leq 100 \text{ Km}^2$ -ko adar-arroa duten ibaitarteetarako (I eta II kategorietako ibaitarteetarako).
- 15 metrokoa $1 < A \leq 10 \text{ Km}^2$ -ko adar-arroa duten ibaitarteetarako (0 kategoriako ibaitarteetarako).
- Km^2 1 baino gutxiagoko adar-arroa duten isurketa edo ibaibideei (00 kategoriako ibaitartei) dagokienean Uren Legeak ezarritakoa izango da aplikagarri.

Erretiro horiek lursail naturalaren alterazioa dakarten eskuhartze guztietan aplikatuko dira (eraikuntzetan, mota guztietako instalazio edo eraikitzeetan, finko nahiz desmuntagarrietan, lur-berdinketa edo -mugimenduetan eta abarretan). Salbuespen izango dira obra publikoei edo azpiegitura-instalazioei dagozkienak edo ondare kulturala babestera bideratutako ekintzak, behar bezala justifikatutakoak.

F.4. HIRIGINTZA-GARAPEN BERRIAK EGITEKO POTENTZIALA DUTEN EREMUETAKO ERTZETARAKO BERARIAZKO ARAUDIA

1. Araudi hau hirigintza-garapen berriak egiteko potentziala duten eremu gisa kategorizatutako ertzetan ez ezik, orain landa-eremuko ertz gisa kategorizatuta dauden baina etorkizunean hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri edo urbanizatzeko egoki gisa berriz kalifikatzeko gai izango diren ertz guztietan ere izango da aplikagarri.

2. Hirigintza-garapen berriak egiteko potentziala duten eremuetako ertz gisa kategorizatutako ertzak batez ere gutxienezko azalera-entitatea duten lurzoru

urbanizagarriko edo urbanizatzeko egoki den lurzoruko sektoreei dagozkie. Horietan ubidearekiko mugakide den lurzoru hutsa erabilgarri izateak ertzen antolamendu espazial zabalagoa ahalbidetzen du, hidraulikaren, hirigintzaren zein ingurugiroaren ikuspegitik.

Ertz horietan, dagoen erriberako landarediari eusten lagunduko duen eta, hala dagokionean, uholdeen aurrean babesteko beharrezko ubiderapen-obren bideragarritasuna bermatuko duen eraikuntza-erretiroetarako araudia planteatzen da.

Ertz horiek tratatzeko obren diseinurako konfigurazio "bigunak" hartzea gomendatzen da, eraikitako ezpondak ezarriz edo, egingarri bada, ubide bikoitzaren formularen bidez.

3. Hirigintza-garapen berriak egiteko potentziala duten eremu gisa definitutako ertzei dagokienean, jada garatutako hiri-zonetako ertzetako eraikuntza- eta urbanizazio-erretiroak baino exijenteagoak planteatzen dira.

Ubiderapenerako eta ertzak tratatzeko obrak oraindik definitu gabe daudela eta kasu guztietan erretiroak ubide publikoaren mugabanaketa-lerro teorikoari dagozkiola hartu da abiapuntutzat.

Eraikuntzarako eta urbanizazio-plataformarako plantatutako gutxieneko erretiroak ondoren adierazi ditugunak dira:

UBIDE-TARTEEN KATEGORIAK	ADAR-ARROAREN AZALERA Km²	ERAIKUNTZAREN GUTXIENEO ERRETIROA metroak	URBANIZAZIOAREN GUTXIENEO ERRETIROA metroak
VI	600 < A	35	25
V	400 < A ≤ 600 Km ²	30	20
IV	200 < A ≤ 400 Km ²	26	16
III	100 < A ≤ 200 Km ²	20	10
II	50 < A ≤ 100 Km ²	16	8
I	10 < A ≤ 50 Km ²	12	4
0	1 < A ≤ 10 Km ²	12	4

II ERANSKINA

"D. LURRAZALEKO UREN TRATAMENDUA

d.1. *Epigrafe honek Ingurugiro Sailordetzako Uren Kalitatearen Kontrolerako Lagin Sarean barne hartutako ubideei dagokien kartografian definitutako urtegi, ibai eta errekekiko mugakide diren eta lur urbanizaezin, urbanizagarri eta hiri-lur gisa sailkatu diren lurren antolamendua du aztergai. Horri dagokionean,*

** Laku, aintzira edo urtegi izango dira Euskal Autonomia Erkidegoan dauden guztiak.*

** Ibai izango dira honakoak:*

Araban: Araia, Ayuda, Barron, Barrundia, Baia, Ebro, Ega, Inglares, Iskiz, Izoria, Omecillo, Zadorra eta Zaia.

Bizkaian: Aguera, Altube, Arratia, Asua, Artibai, Barbadun, Butroe, Kadagua, Karrantza, Ibaizabal, Lea, Nerbioi eta Oka.

Gipuzkoan: Agauntza, Araxes, Bidasoa, Deba, Leizaran, Oiartzun, Oria, Urola eta Urumea.

** Erreka izango dira: Erreferentziatzko kartografian definitu diren eta ibaiaren zerrendan barne hartu ez diren ibai-ubide guztiak.*

Lurraldearen planek LAA hauek proposatutako sare hidrografikoa hemen aintzat hartu ez diren lurrazaleko ubideetara zabaldu eta hedatu ahal izango dute. Udal-plangintzari dagokio sare hidrografikoaren mugak finkatzea eta bere babes-zonak eskala egokian ezartzea.

d.2. *Urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruan Lurrazaleko Urak Babesteko Antolamendu Kategoriarako ezarritako zehaztapenak aplikatuko dira, 5.11.9 artezpideak jasotzen duenaren arabera. Antolamenduaren kategoria hau adierazitako elementuek eta horiei dagokien babes-zonak osatzen dute. Zona hori, hurrenez hurren, ibaiaren eta erreken ubideen alde banatako 50 eta 25 metroko lurzoru-zerrendek eta aintzira eta urtegien inguruko 200 metroko zabalerako lursail-koroa batzuek osatuko dute. Horiek ohiko ur-bolada handienetan urak duen gehienezko mailatik edo gehienezko urtegi-mailatik abiatuta neurtuko dira.*

d.3. *Urbanizagarri edo urbanizatzeko egoki gisa sailkatutako eta sare hidrografikoarekiko mugakide den lurzoruan, udal-plangintzak Lurrazaleko Urak Babesteko zona bat ezarriko du ibaiaren ubidearekiko mugan eraikinek duten gehienezko lerrokatzearen eta uren kanpoko gehienezko lerroaren artean. Ondoren zatika ikusiko dugun gisan, horiek urbanizaezina den lurzorurako ezarri diren zerrendek baino entitate gutxiago dute:*

a. *Arabako Lurralde Historikoa, Aramaio eta Aiara eskualde-egiturako herriak (Laudio, Amurrio, Aiara, Okondo eta Artziniega) izan ezik: Lurrazaleko Urak Babesteko zona ondoren adierazitako zabalerako zerrendek osatuko dute:*

Aintzira eta urtegietan: 50 metro
Ibaietan: 30 metro
Erreketan: 20 metro

b. Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoak eta Arabako gainerako zatia: lurrazaleko urak babesteko zonak dimentsio berdinak izango ditu eta kasu honetan ondoren adierazitako zerrendetan kokatu ezin ziren urbanizazio-elementuak (bideak eta abar) sartu ahal izango dira:

Aintzira eta urtegietan: 30 metro
Ibaietan: 15 metro
Erreketan: 10 metro

d.5. Hiri-lurzorukoak diren eta sare hidrografikoarekin mugakide diren lurretan, eta dagoen antolamenduari eusteko beharrezkoa denean, udal-plangintzak lurzoru urbanizagarriko edo urbanizatzeko egokirako d3 atalean adierazitako babes-zerrenden zabalera murriztu ahal izango du, betiere murrizketa hori eta lurzoruaren helburua justifikatu ondoren. Nolanahi ere den, Uren Legeak ezarritako zortasunerako 5 metro linealei eutsi egingo zaie”.

3. ERTZEK EGUN DUTEN EGOERA

3.1. EAEko IBAIEN ERTZEN TRATAMENDUARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

EAEEn nabarmen berezitako bi lurralde-eremu bereizten dira, isurialde kantauriarra eta isurialde mediterraneoarra.

LAP honi isurialde kantauriarreko sare hidrografikoarekiko mugakide diren espazioen antolamendua dagokio.

Oro har ibilbide motzeko eta malda handiko ibaibideak dira, haran estuetan barrena igarotzen direnak, gure paisajearen erabateko erabakitzaile direnak eta gure lurraldearen funtzionaltasuna eta antolamendua baldintzatzen dutenak. Kantaurialdeko Euskal Herrian ibai eta haran kontzeptuak funtsezko balioak dira gure habitat espaziala definitzeko eta hierarkizatzeke eta elementu erabakitzaile dira komunikazioen sistemen konfigurazioari eta azpiegitura-sareen antolamenduari dagokienean.

Horren guztiaren ondorioz, ibaietako ubideen tratamenduaren eta ertzen okupazioen bilakaera historikoaren azterketa aurretiko ezinbesteko pausoa izango da LAPean planteatzen den ertzen antolamenduaren gauzatzeari begira. Gure lurraldearen ingurugiro-balioak zaintzeko ikuspegitik nahiz bizileku dugun espazioaren arautze hidraulikotik eta hirigintza-antolamendutik eratorritako arazo bidezko haztatzearenetik, ibaien eta bere eremu espazialen tratamendu orekatua oinarritzko eta garrantzi handiko gaia da gure geografia egoki bideratzeari dagokionean.

EAEko isurialde kantauriarreko ibaien egoerari buruzko osoko diagnostiko bat ezartzeko, berariazko arloko garrantzia duten hiru osagai edo aldagairen azterketa egitea proposatzen dugu. Hona hemen hiru horiek: ingurugiro-osagaiaren alderdiak, hidraulika-osagaiaren alderdiak eta hirigintza-osagaiaren alderdiak.

3.1.1. INGURUGIRO-OSAGAIAREN ALDERDIAK

Geografia-markoa

EAEko isurialde kantauriarraren ezaugarri geografikoak garrantzitsuak dira gaur egun dituzten ingurugiroaren arazorik garrantzitsuenetako asko ulertzeko garaian. Oro har, kantaurialdeko haranak dimentsio txikikoak dira eta ipar--hego norabidea izan ohi dute. Haranen antolamendu orokor hau bigarren mailako haranek, lehenengoekiko perpendikular direnek, osatzen dute. Ibaiak isurialde kantauriarraren eta mediterraneoarraren arteko muga antzekoa osatzen duten mendilerroetan sortzen dira: Aiako harrian, Aralarren, Aitzgorrin, Urkiolan, Gorbeian edo Salbada mendizerran. Ibai handien bokaleen artean kostaldeko arro txikiak ditugu. Kantaurialdeak osatzen du Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoen ia lur guztia, baita Arabako Lurralde Historikoko zati bat ere.

Ardatz nagusiak laburrak dira, izan ere, ez dituzte 70-75 kilometro baino gehiago kasu gehienetan. Adarren sarea oro har oso nahasia da, entitate handiagoko errekek osatzen dituzten hamaika erretena txiki dituenak. Kantaurialdeko ibaiak uholdezko izaera dute eta agorraldiko emarien eta ur-bolada handien emarien arteko erlazioak 1:500 edo gehiagokoak izaten dira. Uholdezko izaera hori, duten dimentsio txikia, plubiositate handia (baina irregularra) eta material iragazkaitzen nagusitasuna direla-eta arroak erregulatzeko gaitasun eskasari zor zaio. Dena dela, tamaina jakin batetik aurrerako ibaibideak (km^2 1 inguruko isurialde-arrokoak) iraunkorrak izan ohi dira, iragazketak eta bilketak gertatzen ez badira behintzat. Aldapa handiaren eta haranaren izaeraren beraren ondorioz, ibaien beheko zonetan ere ur biziaren ibaitarteak ugariak dira eta horrek bertako urak modu naturalean oso oxigenatuta egotea ahalbidetzen du.

Haranen zeharkako profilak gehienetan 'V' formakoak izan ohi dira. Zabal samarrak diren haranak entitate eskas samarrekoak izaten dira eta, oro har, erdialdeko ibaitarteetan edo behekoetan izaten dira. Kasu horietan, morfologia ia une oro ura daraman eta zabalagoa edo estuagoa izan daitekeen kanal batek determinatzen dute. Dena dela, aldizka urak gainezka egiten du eta ondoko lautadetara eta ibarretara iristen da, ur-goraldia dela eta arrastatzen dituen sedimentuak bertan jalkiz. Horren ondorioz, urpean gera daitezkeen ibar horiek lurzoru sakonak eta aberatsak eskaintzen dituzte.

Jatorrizko paisajea

Kantaurialdeko ibaiek galeria-baso bat izan ohi dute beren erriberetan: kantaurialdeko haltzadia. Haltzadi horrek ibai-ingurunearen, *sensu stricto*, eta lurreko ekosistemen arteko interfasea adierazten du. Alabaina, denboraren ikuspegitik, gutxi gorabehera aldizka zabaltzen da, ur-goraldien ondorio gisa. Horrela gainerakoan uraren mailaren gaintetik egon ohi diren zonetara zabaltzen da. Hala eta guztiz ere, gehienetan galeria-basoa, haltzadia, izan ohi da horien arteko muga adierazten duena. Kantaurialdeko haltzadia nagusi den zuhaitz-mota batek osatzen du, haltzak (*Alnus glutinosa*) alegia, nahiz eta berekin batera beste espezie batzuk ere agertu ohi diren, hala nola, lizarra (*Fraxinus excelsior*) edo haritza (*Quercus robur*). Barruen sartutako haranetan ohikoa da mendi-hegaleko basoak eta erriberakoak banatzen zaila den lerroa osatzea. Jada aipatu ditugun zuhaitz-espezieekin batera beste hainbat ditugu, baita zuhaiska-geruza (sahatsa, hurritza eta abar) eta geruza belarkara (osina, menda eta abar) handi samar bat ere. Haltzadiaren garrantzia funtsezkoa da. Higadura prebenitzen du, nutriente-kantitate handia ezartzen du, arrain-hazkuntzako eta lurreko faunarentzako babestoki egokia eskaintzen du eta abar.

Ibaien ondoko lursailek ekologikoki banatzen zaila den continuum bat osatzen dute. Entitate handi samarreko uholde-ibarrak dauden kasuetan ohikoa da haltzadia erriberaren beraren bi aldeetara zabaltzea, ia etengabe urez beteta egoten diren lursailak betez. Hezetasuna txikiagoa denean, harizti eutrofoak hazten dira. Iragaita ez da oso garbia izaten. Malda handi samarra duten mendi-hegaletan oro har harizti azidofilikoak edo pagadiak garatzen dira, altitudearen eta orientazioaren arabera.

Ibaien bokaleetan estuarioak edo itsasadarrak sortzen dira. Horietan ibaietako eta itsasoko sistemek berezko dituzten garraio- eta jalkitze-sistemek elkarreragiten dute. Zona horietan izan ohi ditugun landare-espezieak oso berariazkoak dira, itsas goraren eta behearen menpekoak izaten direlako: area batzuk etengabe ur azpian daude, beste batzuk egunero estaltzen dira urez edo agerian gelditzen dira, beste batzuk berriz, aldizka, itsasgoraren altueraren arabera estaltzen dira. Horrek guztiak landaredi berezi bat sorrarazten du: padurako landaredia.

Paisajeen gertatutako aldaketak

Gizakiak nabarmen aldatu du paisajea, baina gure lurraldean bere erlazioak lotura erabakitzailea du ibaibideekin. Hain orografia korapilatsua duen lursail batean, ibaiek eta horien ondoko lurrek zerikusi handia izan dute gaur egungo zibilizazioaren garapena zedarrizten duten alderdietako askotan.

- Ibaietako ardatzek markatzen dituzte komunikazio-bide nagusietako gehienak, nahiz eta horiek historikoki garrantzi handiko akzidente geografikoak izan diren: historiaren zati handi bat ibi-zonen eta zubien ingurukoa da.
- Lan daitezkeen lursailik onenak ibaieetatik gertu daudenak izan ohi dira; lurzoruak emankorragoak direnez, baso naturalak lehenago luberritu ziren, eta horren ondorioz multzoa soro bihurtu zen.
- Gisa berean, giza asentamenduak ibaien ardatzetara lotuta daude, izan ere, horietatik gertu aurkitu dira eraikuntzarako beharrezkoak diren gainazal lauak.
- Ura hainbat gauzatarako erabili izan da: kontsumorako, mugimen-indar gisa (burdinoletan, errota hidraulikoetan), elektrizitatea sortzeko. Hori dela eta, baliabide hori asko erabili izan da historian zehar. Gainera, hiri- eta industria-isurkinak kentzeko bide izan da.

Lurraldearen gaineko eragina gero eta handiagoa izan da historian zehar, nahiz eta aldaketarik bortitzenak azken mende honetan, batez ere azken mende honen bigarren erdian gertatu diren. Lurraldean izan den eragin hori handiagoa izan da ibai nagusien haranen honoetan, izan ere, jada adierazi dugun gisan, horiek eskaintzen dituzte okupaziorako baldintzarik onenak.

Gaur egungo paisajea

Gaur egungo paisajeak duen egoeraren eta gizakiak eragindako aldaketak baino lehen zegoenaren arteko aldea izugarria da. Dena dela, gogoan izan dezagun aztergai dugun markoa Europa Mendebaldea dela, biztanleria-dentsitate handikoa, milaka urteko kulturak eta dauden bitartekoen erabilera intentsiboa dituena. Gure eremuko lurralde-zati handi batean dugun paisajea hainbat mendetan naturaren eta gizakiaren artean izandako erlazioaren ondorio da. EAeko kantaurialdea garatutako eta asko industrializatutako zona dugu, oraindik ere lehen sektoreari lotutako erabilerak baditugun arren.

Laburbilduz, baso naturaletako asko desagertu egin dira, hainbat arrazoi direla-eta aspaldi luberrituta. Kantaurialdeko zona askotan, landa-zonek egun duten paisajea sega-belardien, espezie exotikoen baso-landatzeen eta labore atlantikoen, jatorrizko basoaren hondarrekin nahasten direnen, mosaiko bat da.

Ibaien erriberetan eta beren bokaleetan metatzen da biztanleriaren zatirik handiena. Eredu honetan ditugu hiri-asantamendu garrantzitsuenak, mende honetan zehar harritzeko moduan handitu direnak. Baratza eta laborantza txikien ordez industria-instalazioak garatzen joan dira. Komunikazio-korridoreek (trenbideek, errepideek, autobiek eta autopistek) maiz ibaibideen trazadura aprobetxatzen dute eta neurri handi batean horien ertzak izan ohi dituzte euskarri.

Horren guztiaren emaitza haranen hondoetako basoak garatutako areetan, hau da, hain sartuta ez zeudenetan eta hirigintza-garapenerako aukerak zituztenetan, desagertzea da. Gisa berean, galeria-basoen zati zabalak, ibaien ardatzei lagun egiten zietenak, ere desagertu egin dira ondoren ikusiko dugun gisan.

Okupazio horretatik kanpo gelditu dira hirigintza-garapenerako hain erakargarriak izan ez diren ibaien eta erreken tartekak. Hau da, nabarmen V itxurako profilak dituztenak.

Estuarioek ere narriadura handia jasan dute. Bokaleetako batzuetan (Pasaiako, Urumeako eta Nerbioiko estuarioetan) garai bateko padurak desagertu egin dira. Beste batzuetan aldatu egin dira, neurri batean zein bestean (Bidasoako, Oriako, Urolako, Debako, Artibaiko, Butroeko estuarioetan). Egoerarik onenean dagoena Okako estuarioa, Urdaibaiko padurak osatzen dituena, dugu. Hori, Leakoaren antzera, biosfera-erreserba deklaratu dute. Horiek biak Bizkaian daude.

Hiri- eta industria-okupazioak, komunikazio-azpiegiturei eta nolabaiteko entitateko uholde-ibar gehienetako laborantzei dagokienak, hainbat arazo sortu ditu ur-goraldien eta ibaiek gainezka egitearen eraginaren ondorioz. Historian zehar ohikoak dira hiriguneetan, errotetan, burdinoletan, baita laborantzetan ere, uren goraldiaren ondorioz izandako kalteez eta kaltetuez hitz egiten duten agiriak. Dena dela, mende honetan gertatutakoak dira ezagunenak eta dokumentatuenak. 1983an gertatutakoak kalte material asko eta biktima ugari izan zituen ondorio eta historia modernoko mugarri izan zen.

Hainbat dira hiri-, industria- eta azpiegitura-zona ugari ibaietako uren goraldien, askotan ohikoak izan ohi direnen, eragina izatea argitzen duten arrazoiak:

- Lehenik eta behin hiri- eta industria-garapena urpean gera daitezkeen ibarrak okupatuz egin da (askotan errepika-denbora txikiak izaten dituzte).
- Erretena-estaldura ugari egin dira, gehienetan nahikoak ez diren sekzioekin.
- Zubietako asko oztopo dira goraldietako emariak husteko eta horrek presa-efektua sortzen du.

Lehenengo puntuari dagokionean, Gipuzkoako hirigune eta industrialde askotan eta Bizkaiko ugaritan, ibaiertzetan bertan lurraldean dauden espazio lau urrietako batzuk okupatuz eraikitako hainbat eraikuntza ikus ditzakegu.

Hori dela eta, uholdeen aurkako defentsa-obrak, komunitate biologikoetan eta batez ere ibaien ingurune fisikoan bertan oso eragin negatiboa izan dutenak, egin dira. Ingeniaritza gogorreko obra horiek ibai askok ingurugiroaren ikuspegitik aldaketa sakon eta negatiboak izatea eragin dute. Ondoren adieraziko ditugu ubiderapen-obren ezaugarri generikoak eta horiek ibaietako ekosistemetan izan duten eragina.

- Erriberako landaredia sistematikoki ezabatu da hiriguneetan eta industrialdeetan, izan ere, oztopo da emari altuak husteko.
- Ubideari ahalik eta zabalera gehien ematen zaio, agorraldi-kanalik gabe. Uraren lamina ahalik eta gehien zabaltzeak berekin dakar berori sakabanatzea, fluxua moteltzea eta poluzio- eta eutrofizazio-fenomenoak erraztea.
- Ertzak, landaredirik gabekoak, berriz profilatutakoak eta aldatutakoak, higaduraren aurrean material gogorreko defentsen bidez babesten dira:

hormigoi armatuko harresien, harri-lubeta hormigoituen eta harri-lubeta lehorren bidez. Lehenengo biek ondoren tamaina jakin bateko landaredia izatea eragozten edo zailtzen dute, faunaren babestokiak kentzen dituzte eta abar.

- Maiz ibaiko faunan eta floran eragin zuzena duten dragatzeak egiten dira, espezierik exigenteenak kaltetuz.
- Kasurik larrienetan ubidea, baita ibaiaren ibilgua ere, erabat hormigoiz estaltzera iritsi da.

Ubiderapen-obra horiek eragin handia izan dute ibaien ardatz nagusietako askotan, arroen deskribapenetan kontsulta daitekeen gisan. Gaur egun oraindik ere egiten dira gisa honelako jarduketak, nahiz eta hasi diren jada hainbesteko eraginik ez duten teknikak eta bioingeniaritzako zuzenketa-neurriak sartzen. Kasu gehienetan zalantzazkoa da egindako jarduketak itzulgarriak izatea eta horiek eragozpen izango dira ubideen berreskuratze potentzialerako hondakin-urak arazteko sistemak zerbitzuan hasten direnean.

3.1.2. HIDRAULIKA-OSAGAIAREN ALDERDIAK

Tradizioz gizakiaren bizitza ibaien erabilpenari, intentsitate handikoa edo txikikoa izan denari, lotutakoa izan da, nukleo txikiko hasierako asentamenduetatik, hiri handiak sortzera eta industria-garapenera, ibaiak eskaintzen dituen bitartekoei (hornikuntzari, mugimen-indarrari, hozketari...) eta hondakinak hartzeko duen ahalmenari esker.

Gizakiak gizarte- eta ekonomia-jarduerarako euskarri gisa uholde-ibarrak eta lehen mailako ekoizpen-area gisa, eta azkenaldian, kolonizazio-zona gisa hartze-arroak okupatzeak berekin dakar lurraldeak urpean geratzeko duen joeraren inguruko kezka.

Historian zehar tokian-tokian konpondu dira uholdeek eragindako arazoak eta udalak eta kaltetutako jabeak berak izan dira beharrezko obrak egiteko arduradunak, arroaren gainerako zatian eragin ditzakeen kalteak kontuan izan gabe.

Azken hamarkadako gertakaririk esanguratsuena, eta Euskal Autonomia Erkidegoko ibaien uholdeen inguruko arazoaren tratamenduan lehena eta geroa bereizten dituen, 1983an gertatutakoa izan zen, izan ere, ia Euskadi guztian izan zuen eragina eta oso kalte handiak eragin zituen.

Ildo horretatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Lurralde Politika eta Ingurugiro Departamenduaren bidez, 1988an "Gipuzkoako Lurralde Historikoko erkidegoko ibaien azterketa hidraulikoari" heldu zion. Azterketa horrek bere lurralde historikoaren barruko arroen azterketa planteatzen zuen eta arazoak zituzten zonetarako neurri-programa bat proposatzen zuen.

Metodologia hori oinarri gisa hartuta, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Sailak 1990ean Uholdeen Prebentziorako Plan Integrala (UPPI) prestatu zuen. Plan hori gaur egun erreferentzia garrantzitsua da uholdeen aurreko babesaren inguruko edozein proiekturi heltzerakoan, izan ere, aztertutako arazoaren aurrean planteatzen dituen irtenbideek beti arro osoa hartzen dute kontuan.

Ibaien erregulazio hidraulikoari buruzko lan batzuen sintesi-emaizta gisa MOPTMAko Herrilaren Zuzendaritza Orokorrak 1994an "Iparra III Plan Hidrologikoaren Proposamena" prestatu zuen. Agiri hori gaur egun erreferentziatzeko gida da uholdeak prebenitzeko eskuhartzei eta ibaietako ubideetan eragina duten herrilaren jarduketei

dagokienean, Gobernu Zentralaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean ezarritako aginpide-markoaren barruan.

3.1.3. HIRIGINTZA-OSAGAIAREN ALDERDIAK

Hiri-garapenaren prozesu historikoan ibaien presentzia faktore erabakitzailerik izan da hiribildu txikiak kokatzeko eta, ondoren, herrien eta hirien zabalkundea errazteko.

Lehenengo fase batean ibaiek ura eta energia eskura izatea eta nekazaritzarako egokiak ziren lurzoru lauak ibarrak hurbil izatea bermatzen zuten.

XIX. mendetik aurrera industria-garapenarekin eta komunikazio-sare berria eraikitzearekin, hirigintza-hazkundea haranen hondoetara lekualdatu zen eta espazio gehien eskura zegoen zonetan kontzentratu zen. Bere ezaugarri topografikoak direla eta oso mugatuta dagoen lurralde batean haranen hondo lauak ziren hirigintza-hazkunderako lurzoru egokia lortzeko bitarteko nagusiak.

Lehenengo industriekin, ibaien ertzetan kokatutakoekin, batera, asentamendu nagusiak garatzen joan ziren, kasu askotan lehen nekazaritza-ustiapenera bideratutako ibar lauak aprobetxatuz.

Prozesu horren emaitza gisa, kantaurialdeko erlaitzeko biztanle-nukleo nagusiak haranen hondoetan daude kokatuta, ibaien ertzetako lurzoru lau edo inklinazio gutxiko bakanak okupatuz eta are ibaien ubideak berak eta itsasertzeko zona hezeak ere bere eginez. Adibide bat bakarrik jartzearren nahikoa da Bilbo eta Donostia hiriburuen kasuei erreparatzea, izan ere, nagusiki ibaiei eta itsasoari irabazitako lurretan daude kokatuta. Aipatzekoa da, halaber, Tolosa, Gipuzkoako hiriburu izan zena eta Oria ibaiaren ibaibidearen erdialdean kokatutako uharte batetik abiatuta garatutakoa.

Horrenbestez, esan dezakegu Euskal Herriko isurialde kantauriarreko hirigune nagusietako askotan ibaiak eta horien ertzak berebiziko garrantziko elementuak izan direla espazioaren pixkanakako garapenaren prozesuan.

Bestalde, espazioaren ekarpenaren faktoreari uraren eta energiaren hornidura-iturri gisa eta batez ere hondakinak kentzeko irtenbide gisa izan dituzten funtzioak gehitzen badizkiogu, guztiok ados egongo gara ibaiek gure hirien konfigurazioan eta funtzionamenduan funtsezko pieza gisa duten garrantzia erabakitzailerik onartzerakoan.

Alabaina, orain arte eskaini zaien tratamendu formala ez da kasu askotan bat etorri izan duen benetako garrantziarekin eta maiz ibaien hiri-zeharbideak espazio marjinal huts gisa konfiguratu dira, eraikuntza-garapenen atzealdeko perimetroaren aurrealde gisa.

Azken urte hauetan, uholdeen aurrean babesteko neurri gisa, ubiderapen-obra garrantzitsuak egiten ari dira hiriguneen barruan kokatutako ibaitarteetan. Eskuhartze horiek ertzetako pasealekuak irekitzea ahalbidetzen dute eta berekin dakarte ertzetan kokatutako eraikuntzen pixkanakako birsorkuntza eragiten duten prozesuen hasiera.

Prozesu horiek fabrikek eta industria-poligonoek, kasu askotan ubideetako gutxienezko erretiroak errespetatzen ez dituztenek eta gutxi koalifikatutako instalazio-atzealdeekin ibaiekiko elkarguneen oso tratamendu formal degradatua dutenek, okupatutako ertzak pixkanaka berreskuratzeko lanetara zabaldu beharko dira.

Halaber, industria-poligonoekin edo komunikazio-sareen azpiegitura-elementuekin mugakide diren ertz batzuetan maiz egin izan dira gehiegizko gogortasun formala duten obrak, erriberako landaredia babesteari dagokionean oso sentsibilitate gutxi izan duen tratamendu orokorrek.

Industria-poligono berrietan ubideen ertzak antolatzeko neurri posible gisa, zona berdeen konfigurazioari dagokionean, egungo Lurzoruaren Legearen Plangintza Araudia berriz aztertzei aukera planteatzen da. Gure lurraldearen berriazko kasuan egokiagoa litzateke poligonoek ibaiekin bat egiten duten lekuan babeserako luzekako zerranda estu eta berde batzuk izatea kontzentratutako lurzoru-unitate handiagoak izatea baino, gutxienez 30 m-ko diametroa izango duen zirkulua izateko legezko eskakizuna betetzea ahalbidetzeko.

3.2. INFORMAZIO-SINTESIA

Lurraldearen Arloko Planaren agiria prestatzeko lehendik bazeuden oinarri gisako txosten eta azterketa batzuk hartu ditugu. Horretarako ertzen erregulaziorako eta lurralde-antolamendurako esanguratsuak diren materialak aukeratzeko prozesua egin dugu.

Maileguzko materialak biltzeko eta hautatzeko lan horiek ingurugiroaren, hidraulikaren eta hirigintzaren inguruko alderdi esanguratsu jakin batzuk hobetzeko eta eguneratzeko beharrezkotzat jo diren berariazko landa-lan batzuekin osatu ditugu.

3.2.1. INGURUGIRO-OSAGAIAREN ALDERDIAK

Ingurune fisikoaren inguruko eta ingurugiro-izaerako hainbat plangintza eta azterketa bildu ditugu eta LAP idazteko interesgarriena den informazioa jaso dugu.

Urdaibairi buruzko dokumentazioa.

EAEko parke naturalen eta babestutako biotopoen deklarazioak eta deklarazio berrien aurreikuspenak.

Txingudiko Areako Baliabide Naturalak Babesteko eta Antolatzeko Plan Berezia.

"Natura 2000" Europako Sare Ekologikoan barne hartzeko proposatutako lekuen zerrenda.

Lehentasunezko Interes Naturalistikoko Areak, Ingurugiro Sailordetzak argitaratutako Intereseko Espazio eta Enklabeen Katalogoan barne hartutakoak eta LAAetan interes naturalistikoko area gisa jasotakoak.

Ondo kontserbatutako erriberako landarediaren planoak, geuk egindakoak, 1:25.000eskalara EAEko Landaredi Mapatik abiatuta egindakoak.

EAEn Higadura edo/eta Lerradura Arriskua duten Zonen Planoak.

Euskal Autonomia Erkidegoko akuiferoen urrakortasunaren planoak, 1:25.000 eskalakoak.

GFAREN Hondakindegien, Zabortegien eta Harrobien Inbentarioa.

EAEko kartografia tematikoa, 1/25.000 eskalakoa, Eusko Jaurlaritzaren.

Informazioa biltzeko lana egin ostean, jasotako informazioa egiaztatzean datzan landa-lana egin dugu eta aurretik definitutako antolamenduaren kategoriak eguneratu ditugu.

3.2.2. HIDRAULIKA-OSAGAIAREN ALDERDIAK

Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana idazteko aurretiazko urrats gisa izaera hidrologiko-hidraulikoa duten hainbat azterketa bildu ditugu, "Hidraulika-osagaiaren alderdiak. E: 1/25.000" planoak egiteko beharrezko informazio lortzeko asmoz.

Honakoak izan dira kontsultatutako oinarritzko agiriak:

"Iparra III Plan Hidrologikoaren Proposamena" 2. agiria: arauak. 1994ko ekaina.

"EAEko Uholdeak Prebenitzeko Plan Integrala". Horretatik lortu dira $T = 10$, 100 eta 500 urteetarako uholde-orbanak Oria, Urumea eta Jaizubia ibaien arroi dagokienean.

"Erkidegoko Ibaien Azterketa Hidrologikoa" GFA. Azterketa horretatik lortu dira Deba, Urola eta Oiartzun ibaien uholde-orbanak.

Ubiderapenentarako eta uholdeak prebenitzeko obren eskuhartzeen aurreikuspenei buruzko informazioa, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Saileko Uren Zuzendaritzak eskainitakoa.

Interes kulturala duten zubiei buruzko informazioa, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eskainitakoa.

3.2.3. HIRIGINTZA-OSAGAIAREN ALDERDIAK

Ertzak Antolatzeko LAP, definizioz lurraldea antolatzeko agiria izaki, hirigintza-teknikak erabiltzeko tresna da. Horrenbestez, indarrean dagoen udaleko hirigintza-plangintzari dagokion oinarrizko dokumentazioa bildu da.

Bildutako hirigintza-plangintza Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak argitaratutako inbentarioari, "EAEko Udalen Hirigintza Plangintza Integrala" izena duenari eta 1997ko ekainean argitaratu zenari, dagokio. Liburu horrek 1996 urtera arte garatutako eta onartutako plangintzaren egoera jasotzen du.

Inbentario horretatik hartu dugu udal-plangintzako lurzoruen sailkapena (hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarria edo urbanizatzeko egokia eta lurzoru urbanizaezina), landa-auzuneak eta sistema orokorrak, lurralde-garrantzi nabarmena dutenak, barne.

Informazio hori egiaztatu eta eguneratu egin da beren plangintza berrikusteko prozesua egiten ari diren udalerrien kasu partikularrean. Dokumentazio grafikoan, zehatzago, hirigintzaren inguruko alderdiak berariaz adierazten dituzten ertzen antolamenduaren mapetan, ertzen ondoko lurzoruen motak identifikatu ditugu.

4. ERTZAK ANTOLATZEKO LAP: ALDERDI METODOLOGIKOAK

4.1. LURRALDEAREN ARLOKO PLANAREN GAIA

EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen irizpideak, Lurrazaleko Uren inguruko 5.2.D —5.2. Ingurune Fisikoaren Elementu eta Prozesuei buruzko Artezpide Orokorrak— eta 6.8.7. —6.8. Ingurune Fisikoaren Antolamendu Kategoriak— epigrafeei dagozkienak, garatzen eta xehetasunez azaltzen ditu.

4.2. ANTOLAMENDU-EREMUA ETA AGINPIDEAREN INGURUKO ALDERDIAK

LAParen aplikazio-eremua honakoek osatzen dute: beren urak Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetan isurtzen dituzten arro hidrografiko kantauriarretako ibaibide guztien —sortzen direnetik itsasoratzen diren arte— bi aldeetan dauden 100 metro zabalerako lurzoru-zerrenden multzoak eta urtegien inguruko 200 metro zabalerako lurzoru-zerrendek.

LAParen aplikazio-eremua bat dator Kalera, Karrantza, Kadagua, Aguera ibaien arroen Bizkaiko Lurralde Historikoko zatiekin, Artibai, Lea, Oka, Sollube, Estepona, Butroe, Gobela, Asua, Galindo, Barbadun eta Nerbioi eta Ibaizabal ibaien arroen lurralde osoarekin eta zuzenean Bizkaiko itsasertzean itsasoratzen diren kostaldeko erreken gainerako arro txikiekin. Halaber bat dator Bidasoa, Urumea eta Oria ibaien arroen Gipuzkoako zatiekin, Jaizubia, Oiartzun, Añorga, Inurritza, Urola, Narrondo, Deba eta Saturraran ibaien lurralde osoarekin eta zuzenean Gipuzkoan itsasoratzen diren kostaldeko erreken gainerako arro txikiekin.

Aginpidearen inguruko alderdiei dagokienean, LAP honetan barne hartutako ertzak antolatzeko irizpideen aplikazioa, dagokion moduan, Itsasertzen Legeriatik eratorritako erregulazioarekin koordinatuko da. Horretarako, LAParen dokumentazio grafikoan Itsasoko eta Lehorreko Herri Jabariaren Mugabanaketa Lerroak, 2.3 epigrafean xedatutakoari jarraiki zehaztuko direnak, islatu dira.

Gisa berean LAPean berariaz mugatu dira jada natur ingurunea babesteko onartutako arautzeak badituzten edo une honetan horiek bideratzen ari diren eremuak:

- Parke natural edo babestutako biotopo deklaraturako zonak.
- Urdaibai Biosfera-Erreserbaren eremua Txingudiko Areako Baliabide Naturalak Babesteko eta Antolatze Plan Berezikoko eremua.
- "Natura 2000" Europako Sare Ekologikoan barne hartzeko proposaturako lekuak.
- Lehentasunezko Interes Naturalistikoko Areak, Ingurugiro Sailordetzak argitaraturako Intereseko Espazio eta Enklabeen Katalogoan barne hartutakoak eta LAAetan interes naturalistikoko area gisa jasotakoak.

4.3. AGIRIAREN OINARRI METODOLOGIKOAK

LAParen agiriaren antolamendu orokorrerako irizpide gisa berori hiru lan-arlotan metodologiko sistematizatzea planteatu da:

- Ingurugiro-osagaiaren alderdiak.
- Hidraulika-osagaiaren alderdiak.
- Hirigintza-osagaiaren alderdiak.

Egitura bereizi hori informazioa bilatzeko nahiz araudi-proposamenak sistematizatzeko erabili da, nahiz eta bigarren plano horretan jada sintesi-prozesu bat planteatu den arloko proposamenak bateratuzetik eta integrazuzetik eratorritako gainjarritako sistema normatiboa hartzearen bidez.

Agiria sistematizatzeko lehen irizpide hori hartu ondoren, bigarren urrats metodologiko gisa ibaibideak ezaugarritzea planteatu da. Ezaugarritze hori zonak banatzearen, ibaitarteak banatzearen edo/eta gainjarritako baldintzatzaileen arabera izango da. Horiek desberdinak izango dira hiru azterketa-mailetatik —ingurugiroaren, hidraulikaren eta hirigintzaren inguruko alderdietatik— eratorritako aldagaiak kontuan izanik.

Azterketarako hiru bloketan oinarritutako egitura hau, logikoa denez, izaera orokorreko hainbat alderdiren azterketarekin eta garapenarekin osatuko dugu. Argumentazio-ildo hau memoriaren 5. kapituluaren zabalduko eta xehetasunez adieraziko dugu eta azkenik araudiaren inguruko agiriaren egituraren ere islatuko da, izan ere, hori izaera orokorreko epigrafe batzuen (A, B, C eta G epigrafeen) eta berariazko beste epigrafe batzuen —ingurugiroaren (D epigrafe), hidraulikaren (E epigrafe) eta hirigintzaren (F epigrafe) ingurukoak izango dira— inguruan antolatzen da.

4.4. HERRI-JABARIKO EREMUEEN MUGABANAKETA

LAParen garapenarekin bere aginpideen eremua mugatzeko eta araudian ezarritako erretiroen erreferentziazko abiapuntuak ezartzeko garrantzi berezia duten bi auzi hauteman ditugu:

- Itsasoko eta lurreko herri-jabariaren mugabanaketa
- Herri-jabari hidraulikoaren mugabanaketa.

Itsasoko eta lurreko herri-jabariaren mugabanaketari dagokionean 2.3 eta 4.2 ataletan jada adierazi dugu LAParen dokumentazio grafikoan itsasoko eta lurreko herri-jabariaren mugabanaketa-lerroak irudikatu ditugula. LAParen Araudiaren A.3. puntuan berariaz adierazi da LAPean barne hartutako ertzak antolatzeke irizpideen aplikazioa, dagokion moduan, Itsasertzen Legeriatik eratorritako erregulazioarekin koordinatuko dela.

Herri-jabari hidraulikoaren mugabanaketari bagagozkio, berriz, azpimarratzekoa da mugabanaketa hori ertzak kontrolatzeko eta babesteko politika sistematikoa garatzeko lehenasunezko ekintzatat eta oinarrizko elementutzat jo dela.

Lehenengo fasean ibai nagusien mugabanaketa egitea gomendatzen da eta bigarren faserako utzi ahal izango da adarren eta erreka txikien mugabanaketa.

Horri dagokionean, eta LAParen araudian eraikuntzarako eta urbanizaziorako erretiro-lerroak herri-jabari hidraulikoaren kanpoko mugatik abiatuta ezartzen direnez, beharrezkoa da herri-jabariaren beraren mugak zein diren ezagutzea, erretiro-lerroak finkatzea ahalbidetzeko.

Mugabanaketa horrek batez ere garatutako eremuen ertzetan eta hirigintza-garapen berriak egiteko potentziala duten eremuetan du garrantzi handia, nahiz eta lehenengoetako askotan mugabanaketa egitea nahiko erraza izango litzatekeen jada badauden ubiderapenak direla eta.

4.5. UBIDEAK ETA ARROAK IDENTIFIKATZEA ETA DEFINITZEA

Behin baino gehiagotan egiaztatu ahal izan da ibai edo erreka bat izendatzeko edo, zenbaitetan, ibaibide beraren elkarren hurreneko ibaitarteak izendatzeko izen bat baino gehiago daudela.

LAP egiteko identifikaziorako izendegi bat erabili dugu, araudia sistematizatzeko tresna-euskarri gisa erabiltzeko helburu soilarekin. Ez du, bada, toponimiarekin zerikusia duen beste helbururik. Hori legozkiokeen zuzenketak eginez hobeto daitekeela uste dugu.

Ildo beretik, LAPean egin dugun arro hidrografikoen mugaketak LAParen agirian bertan barne hartutako lurralde-antolamendurako aldagaien kokapenaren arabera barne-sailkapenerako tresna izateko sistematizazio hidrologikorako balioa besterik ez du.

Ibaien puntu kilometrikoak finkatzeko UPPIaren lanetan eta Erkidegoko Ibaien Azterketan jada erabilitakoekin bat etortzeko irizpidea erabili da. Zenbait kasutan, zero puntuak itsasadarraren bokalearekiko atzeratu egin direnetan, izendegi berria kilometro-kopuru zehatz bat desplazatu da erreferentziazko kodea ez galtzeko asmoz.

4.6. LAParen DOKUMENTAZIO GRAFIKOA

LAParen dokumentazio grafikoa prestatzeko erabilitako oinarri planimetrikoa Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritzak eskuratutako jasoketa digitalizatuari dagokio.

Planimetrian hobekuntzak eta eguneratzeak egin dira ibaibideak definitzerakoan, beren irudikapena grafikoa Km² 1eko adar-arroraino sistematizatuz.

LAPean berariaz egin da arroen eta azpiarroen sistemaren mugaketa.

Euskarri planimetriko horren laguntzaz egin da LAParen dokumentazio grafikoa, honako mapa-bildumak osatzen duena.

- 1/150.000 eskalako 2 mapa orokor (A.0 eta B.0 mapak)
- Arroen 12 mapa orokor, hainbat eskalatakoak.
 - A.1.1.- Artibai eta Lea ibaien arroen mapa orokorra.
 - A.1.2.- Ea, Lagako, Oka, Amunategi, Artigas, Azega, Estepona eta Sollube ibaien arroen mapa orokorra.
 - A.1.3.- Merdeka, Andrakas eta Butroe ibaien arroen mapa orokorra.
 - A.1.4.- Gobela eta Asua ibaien arroen mapa orokorra.
 - A.1.5.- Mercadillo eta Galindo ibaien arroen mapa orokorra.
 - A.1.6.- Aguera, Karrantza eta Kalera ibaien arroen mapa orokorra.
 - A.1.7.- Ibaizabal ibaiaren arroaren mapa orokorra.
 - A.1.8.- Nerbioi ibaiaren arroaren mapa orokorra.
 - A.1.9.- Kadagua ibaiaren arroaren mapa orokorra.
 - B.1.1.- Bidasoa, Jaizubia, Oiartzun, Urumea eta Añorga ibaien arroen mapa orokorra.
 - B.1.2.- Oria ibaiaren arroaren mapa orokorra.
 - B.1.3.- Urola, Deba, Inurritza, Narrondo eta Saturraran ibaien arroen mapa orokorra.
- 3 serie, 29na mapakoak, ertzak antolatzeko mapenak (Bizkaia eta Araba), orrialdeka eta 1/25.000 eskalara.
 - Ingurugiro-osagaiaren alderdien seriea (A.2.1. eta A.2.29 arteko mapak)
 - Hidraulika-osagaiaren alderdien seriea (A.3.1. eta A.3.29 arteko mapak)

- Hirigintzaren alderdien seriea (A.4.1. eta A.4.29 arteko mapak)
- 3 serie, 24na mapakoak, ertzak antolatzeko mapenak (Gipuzkoa), orrialdeka eta 1/25.000 eskalara.
 - Ingurugiro-osagaiaren alderdien seriea (B.2.1. eta B.2.29 arteko mapak)
 - Hidraulika-osagaiaren alderdien seriea (B.3.1. eta B.3.29 arteko mapak)
 - Hirigintza-osagaiaren alderdien seriea (B.4.1. eta B.4.29 arteko mapak)

5. ERTZAK ANTOLATZEKO IRIZPIDEAK ETA PROPOSAMENAK

5.1. IZAERA OROKORREKO IRIZPIDEAK ETA PROPOSAMENAK

LAParen idazketan buru izan diren eta gure lurraldeko ibaien, erreken eta urtegien ertzetan babes-zona batzuk ezartzeko beharra funtsatzen duten irizpide orokorrak honako hauek ditugu:

- Uren kalitatea artatzea edo/eta berreskuratzea
- Gutxiengo emari ekologikoari eustea.
- Ibaien eta erreken ubideen okupazioa ekiditea.
- Uholdeetatik eta arrisku naturaletatik eratorritako kalteak minimizatzea.
- Ingurugiro-interes berezia duten ubide-zatien ezaugarriak artatzea.
- Kultur ondarearen elementuak zaintzea.
- Ibaietako ubideak hiri-garapenerako zonetan integratzea.

Helburu orokor horiek aintzat hartuta, ibaietan eta beren ertzetan zehar garatu ahal izango diren eskuhartzeak, zalantzarik gabe, hainbat motatako ekimen eta helbururen arabekoak izango dira. Horrenbestez, horiek hainbat administrazio-instantziari dagozkienak izango dira eta, aurreikus daitekeenez, aginpideen inguruko gatazkak eta eskuhartze-aukera alternatiboak sor litezke.

Horri dagokionean, ibaibideen ertzetan gara daitezkeen jardueren multzoaren erregulazio integrala hain erregistro zabaleko eginkizuna denez, gomendagarria da LAP honen agiriaren aginpideen eremua, ingurune naturalaren babesari eta obra publikoen sistematizazioari dagokienean, lurralde-antolamenduak eta hirigintza-garapenak berekin dakartzaten ekintzen erregulazioan zentratzea, eta ibaien eta beren ertzen, eta horrenbestez, lehen adierazitako helburu orokorrekin zerikusia dutenen inguruko gainerako kasuistiken arautzea gai horretan aginpidea duen administrazio-instantziak kasu bakoitzean ezartzen duen jardunbideari lotzea.

Testuinguru orokor horretan izaera orokorreko proposamen hauek planteatzen dira:

- **Landa-eremuko proposamen generikoak**

— Aplikatu beharreko irizpide orokorra ahal den neurrian ertzetako baldintza naturalak zaintzea da, dagoen padurako eta erriberako landarediari eusten lagunduz eta paduren birsortzearen edo zuhaizgabetutako erriberak birlandatzearen bidez degradatutako ertzak berreskuratzea sustatuz.

— Uholdeen aurrean babesteko, azpiegiturak eraikitze edo hirigintza-garapena sustatzeko ubiderapenak edo errektifikazioak beharko dituzten ubideei dagokienean, eskuhartze horiek inguruneke naturarekin oso agresiboak ez diren eta ibaiaren ubidea haran osoaren marko espazialean integratzea erraztuko duten tratamenduekin egiten ahaleginduko gara.

— Ubide publikoaren mugabanaketa-lerroan gutxieneke erretiro batzuk ezarriko dira lur naturala aldatuko duen edozein eskuhartze (eraikuntzak, mota guztietako instalazio edo eraikitzeak, finko nahiz desmuntagarriak, lur-berdinketa edo -mugimenduak eta abar) egiteko. Salbuespen izango dira behar bezala justifikatutako obra publikoen eta nahitaez ibaibideen ondoan kokatu behar duten jarduketa publiko zein pribatuen (araztegien, kolektoreen, zentral hidroelektrikoen, arrain-haztegien eta abarren) erretiroak.

Interes kultureko elementuak babesteari buruzko proposamenak

Hirigintza-garapenak maiz ibaien inguruan konfiguratu izan dira eta hori dela eta, horien ertzetan interes kulturala duen eraikuntza-ondare aberatsa sortu da. Horri berariaz ibaiaren presentziari lotutako ingeniari-obra (zubiak, noriak, burdinolak, errotak eta abar), askotan duten balio historikoa, etnografikoa eta testigantzakoa dela eta zaintzeko modukoak direnak, gehitzen badizkiogu, ulertzekoa izango da LAParen araudian ibaien ertzetan kokatutako interes kultureko elementuak babesteko jarraibideak eta irizpideak barne hartzea.

Antzinako zubi batzuek, duten bide-funtzionaltasuna edozein mailatakoa izanik ere, zalantzan jarri ezin den kultur balioa dute. Dena dela, batzuetan oztopo hidrauliko izan ohi dira uholdeen prebentzioari dagokionean.

Kasu horietan, eta batez ere hiri-zonen barruan kokatutako interes kultureko zubiei dagokienean, kasu bakoitza banaka aztertu beharko da udal-plangintzan, arazo hidraulikoa konpontzea eta zubiak artatzea eta horien inguruko hiri-ingurunea ahalik eta gehien errespetatzea bateragarri izateko aukerak aztertuz.

Interes kultureko zubiak hirigintza-garapen berriak egiteko potentziala duten zonetan kokatutakoak badira, komenigarria izango litzateke udal-plangintza idazterakoan zonaren azterketa hidrauliko orokorra egitea eta aldi berean hirigintza-garapenari ekin baino lehen esku hartzeko aukera desberdinak ebaluatzea.

7/1990 Euskal Kultur Ondarearen Legearen arabera kultur ondasuntzat, kalifikatu nahiz inbentariatutzat, jotzen diren zubiak beren kalifikazio-espeditentean definitutako babes-erregimenaren edo aipatutako legean aurreikusitako babes-erregimen orokorraren arabera hartu beharko dira barne hirigintza-plangintzetan.

Dena dela, LAP honetatik zaintzeko ahalik eta ahalegin handiena egiteko politika eta interes kultural handiena duten zubien kasuan horiek artatzearekin bateragarri izango diren alternatiba eta irtenbide hidraulikoak hartzea iradokitzen da.

— Monumentu-multzo deklaraturako edo euskal kultur ondareko elementu gisa inbentariatutako hirigune historiko batzuk ibaien ertzetan, potentzialki urpean gera daitezkeen tokietan daude kokatuta.

Hirigune historikoak babesteko eta birgaitzeko politikak bateragarria izan beharko du kasu horietan uholdeak prebenitzeko ubiderapenak egiteko, ubideak errektifikatzeko, zabaltzeko edo irekitzeko beharrezko jarduketekin.

Ohikoak izaten dira ubideetatik gertuegi eraikitako eraikinak, zenbaitetan zalantzan jarri ezin den interes kulturala eta monumentu-balioa dutenak, hurbilegi egoteagatik oztopo hidrauliko direnak.

Kasu horietan, udal-plangintza idazteko prozesuan zehar ondarea zaintzeko helburuen eta uholdeen aurrean babesteko arazoak konpontzearen arteko konpromisorako formulak aurkitzeko beharrezko berariazko azterketa hidraulikoak eta hirigintzazkoak egin beharko dira. Hirigune historikoei dagokienean ez dira kontuan hartuko LAParen araudian ezarritako eraikuntza-erretiroen parametroak. Aitzitik, puntu bakoitzerako berariazko arazoa hartuko da aintzat, bildutako aukera alternatiboak ebaluatuko dira eta egokien irizten den irtenbide partikularra onartuko da.

LAParen dokumentazio grafikoan ibaiaren ubidearekiko mugakide direla-eta berariazko arazoa duten monumentu-multzotzat deklaraturako hirigune historikoak eta inbentariatutako gainerakoak guneak adierazi ditugu.

Hornidura-urtegiak eta ur-kaptazioak babesteari buruzko proposamenak.

— Babes-areak gisa definituko dugu presaren goiko aldean eta bere isurialde-arroaren barruan duen gehieneko ohiko urtegi-mailari dagokion lerrotik abiatuta neurtutako 200 metroko banda perimetrala. Urtegi baten babes-arearen barruan egin nahi den edozein jarduketa- edo erabilpen-mota egin ahal izateko, dagokion plan berezian jasotako berariazko araudiari jarraitu beharko zaio.

Araudiaren C.3 kapituluan erabileren eta jardueren arautze bat proposatzen da.

— Ur-kaptazioak babesteari buruzko araudiari dagokionez, Uren Legearen eta gai horren inguruko aginpidea duen aginteak ezarritako zehaztapenen arabera jardungo da. Udal bakoitzeko hirigintza-plangintza orokorrean, lurzoru urbanizaezinaren zehaztapenetan dauden ur-kaptazio esanguratsuenak jaso beharko dira eta dagozkion babes-neurriak ezarri beharko dira.

Ubideetatik hurbil dauden azpiegiturei buruzko proposamen generikoak.

Ubideekiko mugakide diren lurrazpiko azpiegitura linealak, hala nola, kolektoreak, ur-hodiak, gasbideak, telekomunikazioetarako sareak, instalatzeko, honako erretiro-erregimena aplikatuko da:

- Landa-eremua : 15 metro, jada badagoen toki-bide baten azpian kokatuko direnean izan ezik. Kolektoreak eta beste hodi hidrauliko batzuk mugapen horretatik salbuets daitezke behar bezala justifikatutako kasuetan.
- Garatutako eremuak: Azpiegiturak toki-bideen edo espaloien azpian edo ubiderapenen arktubarneran instalatzen ahaleginduko gara.
- Hirigintza-garapen berriak egiteko potentziala duten eremuak: Azpiegiturak urbanizazio berriko bideen edo espaloien azpian instalatzen ahaleginduko gara.

Ez dira baimenduko, behar bezala justifikatutako kasu berezietan izan ezik, landa-eremuko ubiderapenak azpiegitura linealak kokatzeko. Ubideen gurutzatzeak, hala dagokionean, behar-beharrezkoak diren ubiderapenak eginez konponduko dira. Azpiegiturak ezartzearekin, berriazko azterketa batean ebaluatutako ezintasunik ezean, aurretik zeuden interes naturaleko elementuak eta erriberako landaredia artatu beharko dira eta horien diseinuak jada desagertu den lekuetan landaredi hori birsortzea ahalbidetu beharko du.

5.2. ERTZETAN ZONAK ETA IBAITARTEAK BANATZEA HIDRAULIKAREN, INGURUGIROAREN ETA HIRIGINTZAREN OSAGAIEN ARABERA: ERTZAK ANTOLATZEKO MAPAK.

LAParen funtsezko proposamenetako bat ibaibide guztiak, hiru azterketa-mailatan oinarrituta, antzeko arazoak dituzten zonen edo ibaitarteen arabera zatikatzea da:

- **Ertzak zonatan banatzea ingurugiro-osagaiaren arabera.**
- **Ibaibideak ibaitartetan banatzea beren arro hidraulikoen arabera.**
- **Ertzak zonatan banatzea beren hirigintza-osagaiaren arabera.**

Ertzak beren ingurugiro-osagaiaren arabera zonatan banatzean berariaz definitzen dira ingurune fisikoa babesteko lehentasunezko zonak beren balio ekologikoak, paisajistikoak, produktiboak eta zientifiko-kulturalak artatzea, higadura edo akuiferoen poluzioa bezalako arrisku jakin batzuen aurrean babestea eta beren berezko bokazioarekin bat ez datozen erabilerak eta jarduerak direla-eta degradatutako enklabeak berreskuratzea bermatzeko.

Lau zona berezi desberdindu dira berariaz, ingurugiro-babeserako oinarritzko politika orokor baten gai izan behar duten koalifikazio berezirik gabeko zonez gain:

Lehentasunezko interes naturalistikoko zonetako ertzak.

Ondo artatutako landaredia duten ertzak.

Higadura- eta lerradura-arriskua edo/eta akuiferoen urrakortasuna dituzten zonetako ertzak (LAAetako baldintzatzaile gainjarriak).

Berreskuratzeko premia duten ertzak.

Hori zerrendatzeko ordena definitutako babes-moten artean ezarritako hierarkiari dagokio. Dena dela zonak ez dira beren artean baztergarriak.

Kategorizazio hori grafikoki islatu dugu ertzak antolatzeko mapen bilduman. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak, 1/25.000 eskalara, A.2.1. eta A.2.29 arteko eta B.2.1. eta B.2.24 arteko mapetan.

Ibaibideak arro hidraulikoen arabera ibaitartetan banatzeari dagokionean, LAPean barne hartutako ibaibide guztiak puntu bakoitzeko adar-arroaren azaleraren arabera 8 ibaitartetan banatzea ezarri da.

Honako eskala proposatu da hain zuzen ere:

Ibaitarteak	Adar-arroaren azalera (Km ²)
VI	$600 \text{ Km}^2 < A$
V	$400 \text{ Km}^2 < A \leq 600 \text{ Km}^2$
IV	$200 \text{ Km}^2 < A \leq 400 \text{ Km}^2$
III	$100 \text{ Km}^2 < A \leq 200 \text{ Km}^2$
II	$50 \text{ Km}^2 < A \leq 100 \text{ Km}^2$
I	$10 \text{ Km}^2 < A \leq 50 \text{ Km}^2$
0	$1 \text{ Km}^2 < A \leq 10 \text{ Km}^2$
00	$A \leq 1 \text{ Km}^2$

VI eta I arteko mailetakoko ibaitarteak 10 Km² baino gehiagoko adar-arroa duten ibaibideei dagozkie. Horien azterketa partikularra orrialde grafikoen bildumetan garatu dugu 1/25.000 eskalara, hidraulikaren, ingurugiroaren eta hirigintzaren inguruko osagaiak kontuan izanik.

0 mailako ibaitarteak, 1 eta 10 Km² arteko adar-arroa duten ibaibideei dagozkienek, erreka edo erretena dute izena eta grafikoki islatu ditugu planaren kartografian, nahiz eta beren ertzen ezaugarriak ez izan berariazko azterketa xehe baten gai.

00 mailako ibaitarteak askotan aldizkakoak izaten diren eta Km² 1eko arrora iristen ez diren ibaibideei dagozkie eta isurketa deitu ohi zaie.

Ibaitartetan banatze hori grafikoki islatu dugu ertzak antolatzeko mapen bilduman. Hidraulika-osagairen alderdiak, 1/25.000 eskalara, A.3.1. eta A.3.29. arteko eta B.3.1. eta B.3.24. arteko mapetan.

Ertzak beren hirigintza-osagaiaren arabera zonatan banatzeari dagokionean, LAPean barne hartutako ubide guztien ertzak zehatz-mehatz banatu dira zonatan beren hirigintza-garapen orokorraren mailaren arabera:

A. Landa-eremuko ertzak.

B. Hiriarteko komunikazioetarako azpiegiturek betetzen dituzten ertzak.

C. Garatutako eremuetako ertzak.

D. Hirigintza-garapen berriak egiteko potentziala duten eremuak.

Garatutako eremuetako ertzak modu espazialean mugatuko dira hirigune historikoak eta ibaibideak mugakide direnean.

Zonatan banatze hori grafikoki islatu dugu ertzak antolatzeko mapen bilduman. Hirigintza-osagaiaren alderdiak, 1/25.000 eskalara, A.3.1. eta A.3.29. arteko eta B.3.1. eta B.3.24. arteko mapetan.

5.3. BERARIAZKO IRIZPIDEAK ETA PROPOSAMENAK INGURUGIRO-OSAGAIAREN ARABERA.

5.3.1. ERTZAK ZONATAN BANATZEA INGURUGIRO-OSAGAIAREN ARABERA

LAParen idazketan aintzat hartu dugun funtsezko irizpidea ertzetako baldintza naturalak ahalik eta gehien zaintzea izan da, gisa horretan dagoen padurako edo erriberako landaredia artatzen laguntzeko eta padurak birsortuz edo zuhaizgabetutako erriberak birlandatuz degradatutako ubideak berreskuratzea sustatzeko.

Irizpide orokor horri jarraiki LAParen lan nagusietako bat beren ingurune naturalaren ezaugarri fisikoak edo ingurugiroaren ezaugarriak direla eta, horiek artatzea bermatzeko babes- eta zaintza-neurri bereziak hartzea eskatzen duten ibaitarteak zein diren detektatzea izan da. Halaber, degradatutako ubideen biziberritzea errazteko berreskuratze-eskuhartzeak zein ibaitartetan egitea proposatzen den definitu da.

Babes bereziko ertzak hautatzerakoan honako zona hauek berezi dira zaintzeko neurrien garrantziaren arabera:

- **Lehentasunezko interes naturalistikoko ertzak.**

Lehentasunezko interes naturalistikoko zonatzat honakoak joko dira:

Urdaibaiko Biosferaren Erreserba

URDAIBAI - 5/1989 Legea, uztailaren 6koa, URDAIBAICO BIOSFEREREN ERRESERBA babesteari eta antolatzeari buruzkoa (1989ko uztailaren 29ko EHAA).

Parke Naturalak eta Biotopo Babestuak

- URKIOLAKO PARKE NATURALA - 275/1989 Dekretua, abenduaren 29koa, URKIOLAKO PARKE NATURALA deklaratzekoa (1990eko urtarrilaren 4ko EHAA).
- ARALARKO PARKE NATURALA - 168/94 Dekretua, apirilaren 26koa, ARALARKO PARKE NATURALA deklaritzen duena (1994ko ekainaren 29ko EHAA).
- GORBEIAKO PARKE NATURALA - 228/94 Dekretua, ekainaren 21ekoa, GORBEIAKO ingurua PARKE NATURAL deklaritzen duena (1994ko abuztuaren 16ko EHAA).
- AIAKO HARRIKO PARKE NATURALA - 240, 241/1995 Dekretuak, apirilaren 11koak, AIAKO HARRIKO ingurua parke natural deklaritzen duena eta natur baliabideak antolatzeko plana onartzen duena (1995eko ekainaren 5eko EHAA).
- LEIZARANGO BIOTOPO BABESTUA - 416/1995 Dekretua, irailaren 29koa, LEIZARANGO Biotopo Babestua deklaritzen duena. (1995eko urriaren 20ko EHAA).
- INURRITZAKO BIOTOPO BABESTUA - 40/1997 Dekretua, otsailaren 25ekoa, Inurritzako Ingurua Babestutako Biotopo deklaritzen duena (1997ko martxoaren 11ko EHAA).
- PAGOETAKO PARKE NATURALA - 254/1998 Dekretua, irailaren 29koa, Pagoetako ingurua parke natural deklaritzen duena (1998ko urriaren 27ko EHAA).
- AIZKORRIKO PARKE NATURALA - 1995eko otsailaren 16ko Agindua, AIZKORRIKO inguruko Natur Baliabideak Antolatzeko Plana prestatzeko eta onartzeko jardunbidearen hasierakoa (1995eko martxoaren 21eko EHAA).
- RANERO HAITZETAKO PARKE - 1995eko otsailaren 16ko Agindua, RANERO HAITZEN inguruko Natur Baliabideak

NATURALA

Antolatzeke Plana prestatzeke eta onartzeke
jardunbidearen hasierakoa (1995eko
martxoaren 21eko EHAA).

Txingudiko Plan Berezia

TXINGUDI - TXINGUDIKO areako Natur Baliabideak Babesteko
eta Antolatzeke Plan Berezia.

"Natura 2.000" Europako Sare Ekologikoa

- GORBEIA
ES2110002
 - URKIOLA
ES2130003
 - PAGOETA
ES2120005
 - AIAKO HARRIA
ES2120006
 - RANEROKO HAITZAK-JORRIOS
ES2130007
 - ARALAR
ES2120008
 - URDAIBAICO ARTADI KANTAURIARRAK
ES2130009
 - BIDASOAKO ITSASBAZTERRAK ETA
PADURAK
ES2130010
 - LEIZARAN IBAIA
ES2120012
 - INURRIZA
ES2120013
 - GAZTELUGATXE
ES2130014
 - BIDASOAKO PADURAK ETA TERRAZAK
ES2120015
 - ULLIA
ES2120016
 - ARNO
ES2120017
 - IZARRAITZ
ES2120018
 - ERNIO-GATZUME
ES2120019
- Eusko Jaurlaritzako Kontseiluaren
Erabakia, 1997ko abenduaren 23koa,
"Natura 2.000" Europako Sare
Ekologikoan barne hartzeke EAEko
lekuen zerrenda proposatzen duena.

LA Aetan hirigintza-intereseko area gisa barne hartutako areak

1. Ranero haitzak- Jorreos
3. Aizkorri
4. Entzia
5. Pagoeta
6. Gaztelugatxe-Matxitxako
7. Gorniz-Armintza
8. Armintza-Bakio
9. Otoiko mendiak eta itsaslabarrak
10. Zierbenako eremua
11. Pobeñako padurak eta La Arena hondartza
12. Mendexa-Berriatuko kostaldeko ibarrak
13. Ordunteko mendiak
14. Jaizkibel mendia
15. Bidasoako padurak eta terrazak
16. Uliako itsaslabarrak
17. Getariako San Anton (sagua)
18. Mutriku-Saturrarango itsaslabarrak
19. Mendizorrotzeko errekaak
20. Aitzuri lurmuturra (Mendata)-Zumaia
21. Urola ibaiaren bokalea
22. Inurritzako itsasadarra eta dunak
23. Garate-Santa Barbara
24. Arno mendia-Olatz
25. Aginagako urtegia
26. Andutz mendia
27. Oria ibaiaren itsasadarreko padura-guneak
28. Haranerrekako harana
29. Atxulondo-Abaloz
30. Izarraitz
31. Adarra-Usabelartze
32. Ernio-Gazume
33. Karakate-Irukurtzeta-Agerre Buru
34. Murumendi
35. Araxes ibaiaren harana-Jazkugañe eta Basabe
36. Gorostiaga mendia (Satui)
37. Halhinagoiako pagadia
39. Godamo mendiko haritzia
51. Udalaiz

- **Ondo artatutako landaredia duten ertzak.**

Mota hau ubideetako erriberetan dagoen landarediaren artapen-egoeraren arabera definitzen da, zaintzea komeni den landaredia duten ertzak dituzten ibaitarteak hautatuz:

- Ondo artatutako haltzadia: Euskal Herriko isurialde kantauriarrean ibaibideek duten baso naturala haltzadi kantauriarra izeneko galeria-basoa dugu. Haltza (*Alnus glutinosa*) da zuhaitz-espezie nagusia eta batzuetan bakarra. Dena dela, batzuetan beste espezie batzuekin batera agertzen da, adibidez, lizarrarekin (*Fraxinus excelsior*) eta neurri txikiago batean haritz kandudunarekin (*Quercus robur*) eta abarrekin. Oso ohikoa da zuhaitz ugari agertzea. Horien artean sahatsa (*Salix sp.*), hurritza (*Corylus avellana*) eta abar aipa ditzakegu. Hasieran, ibaibideen ondo-ondoko lursailak okupatzeaz gain urpean gera daitezkeen ibar lauak ere bete ei zituzten. Gaur egun, kasurik onenetan, zuhaitz-lerro bakar edo bakan batzuk besterik ez dira izaten.
- Espezie exotikoak nagusi dituzten erriberako basoak: nahiko ohikoa da garatutako erribera-basoak, baina beren konposizioko espezie nagusi gisa naturalizatutako edo landatutako espezieak dituztenak, aurkitzea. Horien artean bananondoak, sasiakaziak, makalak eta abar aipa ditzakegu. Ibaite zabaletan ere ohikoak izaten dira (Urola eta Oria ibaien behealdeko ibaitarteetan esate baterako).
- Itsasadarretako zona hezeetako berezko landaredia.

- **Higadura- eta lerradura-arriskua edo/eta akuiferoen urrakortasuna dituzten zonak.**

Honakoak hartuko dira barne zona honetan:

- Higadura- edo/eta lerradura-arriskua duten zonatako ertzak (LAAetako baldintzatzaile gainjarriak). Ubideetatik hurbil dauden lurzoru ahulak edo/eta mendi-hegalen ezegonkortasuna duten areak dira, higadura-arazoak eta maila bateko zein besteko lerradurak izateko arriskua dutenak. Higadura aktiboa, lurrazaleko lerradurak eta mendi-hegaleko ezegonkortasuna dituzten zonak ere hartu dira barne, Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailordetzak eskainitako inbentarioaren arabera.
- EAeko Akuiferoek Poluzioaren aurrean duten Urrakortasunaren Maparen arabera (Ingurugiro Sailordetza), akuiferoen urrakortasun altua edo osoa altua duten zonak (LAAetako baldintzatzaile gainjarriak).

- **Berreskuratzeko premia duten ertzak.**

Hondakindegia, zaborteak, hondeaketak, betelanak, ubiderapen-lanak eta abar direla eta degradatutako ertzak eta erriberak. Halaber kategoria honetan hartu dira barne beste edozein arrazoi dela-eta beren kalitate ekologikoa gutxitu duten edo gomendioen arabera aktiboki birsortu behar diren ibaitarteak.

Zonatan banatze hori grafikoki islatu dugu ertzak antolatzeko mapen bilduman. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak, A.2.1. eta A.2.29. arteko eta B.2.1. eta B.2.24 arteko mapak, 1/25.000 eskalara.

5.3.2. ERTZAK BEREN INGURUGIRO-OSAGAIAREN ARABERA ANTOLATZEKO IRIZPIDEAK

Aplikatu beharreko irizpide orokorra ahal den neurrian ertzetako baldintza naturalak zaintzea da, gisa horretan dagoen padurako edo erriberako landaredia artatzen laguntzeko eta padurak birsortuz edo zuhaizgabetutako erriberak birlandatuz degradatutako ubideak berreskuratzea sustatzeko.

Beren ingurugiro-balioak eta -ezaugarriak direla-eta babes bereziko gisa zonatan banatutako ertzei dagokienez, kontrolerako eta babeserako berariazko neurri hauek planteatu dira:

- **Lehentasunezko interes naturalistikoko zonetako ertzak:**

Lehentasunezko interes naturalistikoko zona gisa katalogatutakoetan babeserako irizpide nagusia ubidea babesteko area bat ezartzean datza. Area horretan debekatuta egongo da ingurunearen alterazioa dakarten eragiketak egitea.

Ondoren adierazitako kasuetan ubidea babesteko arearen definizioa eta ertzetan baimendutako, onartutako edo debekatutako erabilera eta jardueren finkapena jada onartu diren edo etorkizunean onartuko diren antolamendu-agirietan, kasu horiei dagozkienetan, ezarritakoak izango dira. Hona aipatutako kasuak: Urdaibaiko Biosferaren Erreserba, parke natural edo babestutako biotopo deklaraturako espazioren bat, Txingudiko Baliabide Naturalen Plan Berezia, "Natura 2000" Europako Sare Ekologikoan barne hartutako lekuren bat edo LAAen Interes Naturalistikoko Areen zerrendan barne hartutako zonaren bat.

Ibaien eta erreken ertzetan kokatutako zona hezeak Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan definitutako Zona Hezeak Babestu eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren arabera antolatu ahal izango dira.

Plan honi dagokionean, lehentasunezko interes naturalistikoko zonatzat joko dira indarrean dagoen araudian aurreikusitako tresnen arabera etorkizunean nabarmenduko diren espazioak.

Lehentasunezko interes naturalistikoko beste zona batzuetan kokatutako landa-eremuko ertzetan herri-ubidearen mugabanaketa-lerroan 50 metroko gutxieneko erretiroa errespetatuko da. Erretiro hori lur naturalaren alterazioa dakarten eskuhartze guztietan aplikatuko da (eraikuntzetan, mota guztietako instalazio edo eraikitzeetan, finko nahiz desmuntagarrietan, lur-berdinketa edo -mugimenduetan eta abarretan). Salbuespen izango dira obra publikoei edo azpiegitura-instalazioei dagozkienak edo ondare kulturala babestera bideratutako ekintzak, behar bezala justifikatutakoak.

- **Ondo artatutako landaredia duten ertzak:**

Ertz horietan dagoen landaredia zaindu nahi da ekosistema bere egoera klimatikotik gertu dagoenean, edo klimaxerako bilakaera erraztu izaera biguna duten birsortzeko eskuhartzeen bidez, landaredia baliotsuari eusteko ahaleginez.

- **Higadura- eta lerradura-arriskua edo/eta akuiferoen urrakortasuna dituzten zonetako ertzak.**

Zona horietan aintzat hartu beharreko irizpide orokorra landare-estalkiari eustea izango da, baita narriatuta dagoen kasuetan edo existitzen ez den kasuetan hori hobetzea edo ezartzea ere, higadura-prozesuen garapenari aurre egiteko funtsezko tresna gisa. Halaber, landare-estalkiaren narriadura dakarten edo lur-mugimenduak berekin dakartzaten jarduerak ekidingo dira. Bereziki zainduko da akuiferoak polui ditzaketan isurketak sortzeko aukera.

Zona horietan lurzorua ezarpen-propietateen arabera hautatutako zuhaitz-espezieak edo zuhaitz-formakoak landatzea edo ereitea erraztuko da, higadura-prozesuak ekiditeko kultur prozedurarik egokienei jarraiki.

- **Berreskuratzeko premia berezikotzat jo diren ertzak.**

Ertz horietan aplikatu beharreko irizpide orokorra hondakindegia eta zaborteak direla-eta degradatutako, edo ubiderapenak edo beste mota batzuetako obrak direla eta aldatutako enklabeen berreskuratzeari eta zaharberritzeari heldzea izango da.

Ingurugiroa hobetzeko jarduerak sustatuko dira, ubidearen morfologia naturala berreskuratzeko eta erriberetako landaredia edo padurak lehengoratzeko eskuhartzeen bidez.

Beren ingurune-koalifikazioaren arabera ertzen lurralde-antolamenduari dagozkion berriazko zehaztapen gisa irizpide horiek eta lurzoruen erabilerek duten erregulazioa sistematizatuta garatu da LAParen Araudiaren D kapituluan.

Ingurugiroaren alderdiei dagokienean berezitat jo diren zona eta enklabeen identifikazio xehekatua ertzak antolatzeke mapena bilduman adierazi dugu zehatz. Ingurugiro-osagaiaren alderdiak, memoria partikularraren 1.2.A. eta 1.2.B. agiriak.

5.4. BERARIAZKO IRIZPIDEAK ETA PROPOSAMENAK
HIDRAULIKA-OSAGAIAREN ARABERA.

5.4.1. UBIDERAPENEN ZABALEREN KALKULU HIDRAULIKOA

Ondoren LAParen eraikuntza- eta urbanizazio-erretiroen araudia garatzeko, ibaien ubiderapenerako beharrezko gutxieneko zabaleren kalkulu teorikoak egiteko lehen saio bat egin dugu.

Oro har saiatu gara hemen adierazitako erretiro hidraulikoak Iparra III Plan Hidrologikoaren 2.1.5.1.11 Arauan xedatutakoaren arabera hiri-garapeneko edo hiri-garapen potentzialeko zona bat uholde-arriskutik babesteko ubiderapen-obra egitea ahalbidetzeko adinakoak izan daitezen. Horretarako aurretiaz ubiderapen-plan bat egin beharko da.

Horretarako hiru ubiderapen-mota definitu dira:

- Horma bertikalen bidezko ubiderapena.
- Alboko ezponden bidezko ubiderapena.
- Ubiderapen bikoitza: beheko uren ubide iraunkorra eta ur-boladen ubidea, goiko uretan bakarrik erabili ahal izango dena.

Ubiderapen-motaren eta ibaiaren azalera drenatzailearen arabera beharrezkoa izango den ubiderapenaren zabalera kalkulatzeko antolamendu-agiri honen mailan baliagarri diren, baina berariazko zona bakoitzari dagokion kalkulu hidraulikoa egitea inoiz ekidin behar ez duten, hasierako hipotesi batzuk egin dira.

Abiapuntu gisako hipotesiak honakoak izan dira:

- Ur-boladaren emaria Zapataren formularen biez lortu dugu. Formula honek zigortu egiten ditu pixka bat arro txikiak eta agian balio baxu samarrak eman ditzake 600 Km^2 baino gehiagoko arroen kasuan, baina azterketa honen mailan hurbilpen baliagarria izan daiteke.
- Arro-azalera bakoitzari batez besteko malda hidrauliko bat, Euskal Herriko Uholdeen Prebentziorako Plan Integraletik lortu dena, lotu zaio. Zalantzarik gabe batez besteko datu bat da, izan ere, badira kalkuluan adierazitakoa baino malda handiagoa edo txikiagoa duten ibaien kasuak. Hala eta guztiz ere, egoki zentratzen du zona bakoitzeko arazoa.

— Arro-azalera bakoitzari Euskal Herriko Uholdeen Prebentziorako Plan Integralean lortutakoen antzekoak diren Froude zenbakiak eta abiadurak sortzen dituen batez besteko sakonera bat ere lotu zaio. Zalantzarik gabe batez besteko datu bat da, izan ere, badira kalkuluan adierazitakoa baino sakonera handiagoa edo txikiagoa duten ibaien kasuak. Hala eta guztiz ere, honek ere egoki zentratzen du zona bakoitzeko arazoa.

Hiru hipotesi horietatik abiatuta eta hidraulikaren ekuazioak erregimen uniformearen aplikatuta, horma bertikalen eta alboko ezponden bidezko ubiderapenen kasuetan dagokien zabalera kalkula daiteke, ubideratutako ibaiaren zimurtasun-koefiziente jakin batzuk hartuta.

Ubide bikoitzen bidezko ubiderapenen kasuan, derrigorrezkoa da laugarren hipotesi bat, beheko uretako ubide-zabalera finkatzean datzana, egitea. Horretarako, benetako ibaietan egin dira neurketak, izan ere, beheko uretako ubideak nahiko ondo definituta agertzen dira topografietan. Ikus daiteke zabalera hori, aldakorra izango dena noski, arro drenatzailearen erro karratuaren ingurukoa izan ohi dela. Hortik aurrera, dagozkien orrialdeetan agertzen diren kalkulu hidraulikoak egin daitezke.

Alboko ezponden bidezko ubiderapenen kasuan ibaian aurreikusitako ezponda 1,5:1 (horizontal:bertikal) ezponda izango da, izan ere, ertzetako birlandaketa egokia ahalbidetzen du.

Ubide bikoitzaren kasuak ezaugarri desberdinak ditu ibaietan erregimen mantsoan bakarrik erabili beharko bailitzateke. Hori printzipioz 50 Km² baino gehiagoko arro drenatzailea duten ibaietan bakarrik lor daiteke. Bestalde goiko uretako proposatutako ezponda 2:1ekoa da, lurrera hobeto egokitzeke.

Honekin batera doazen koadroetan kalkulurako erabilitako kontzeptuak definitzen dira.

Horma bertikalen bidezko ubiderapena lehenago aipatutako beste bi motetako ubiderapenak egitea ahalbidetzen ez duten hiri-garapeneko zonetan bakarrik erabili ahal izango da. Oro har ubiderapen garestiak izaten dira eta beste bi ubiderapen-motekin erkatuz ibaiari irabazitako lurraren prezioak ez du egindako inbertsioa justifikatzen.

Gainera ikuspegi hidraulikotik eta ibaien ikuspegitik ubiderapen horiek arazo larriak sortzen dituzte erdi-mailako eta beheko uretan, uraren abiadura oso txikia izan ohi delako. Hori dela eta, jaulkitze handiak gertatzen dira eta horren ondorioz ibaiak bere ibaibidea sortu behar du beheko uretan egindako ubiderapenaren zati bat betez. Horren eraginez bere ahalmen hidraulikoa gutxitu egingo da eta uholdeen eraginez urek gainezka egiteko arriskua handituko da.

Bestalde, gisa honetako ubiderapenek eragin negatiboa izan ohi dute ibaiaren ekosisteman, izan ere, beheko uren ubide naturala baino %80 inguru zabalagoa denez, uren abiadura gutxitu egiten da eta uraren lamina ere txikiagoa izango da. Horren eraginez uraren tenperatura handitu egingo da eta oxigenoa disolbatzeko gaitasuna, autoarazteko gaitasuna eta bertan bizitzeko ahalmena gutxitu egingo dira.

Horrenbestez mota honetako ubiderapenak uholde-arriskua gutxitzeko jardutea beharrezkoa denean eta beste ubiderapen-mota batzuk egiteko espaziorik ez duten hiri-garapenetako zonetan bakarrik izango lirатеke onargarriak.

I. koadroan horma bertikalen bidezko ubiderapenatarako arro-azalera desberdinentzat lortutako zabalerak adierazi ditugu, jada azaldu dugun kalkulurako metodologiari jarraiki.

Alboko ezponden bidezko ubiderapenak ubide bikoitzaren bidezko ubiderapena egitea ahalbidetzen ez duten hiri-garapeneko zonetan eta 50 Km² baino gutxiagoko arro drenatzaileak dituzten ibaitarteetako edozein zonatan erabili beharko lirатеke.

Gainera ikuspegi hidraulikotik eta ibaien ikuspegitik, ubiderapen horiek beheko uren ubide naturalarekin erkatuz gero %40-50 inguru zabaltzen dute ubidea eta hori dela eta, horrelakoetan ere jalkitze-arazoak sortzen dira erdi-mailako eta beheko uretan, horma bertikalen bidezko ubiderapenen kasuan baino gutxiago badira ere.

Bestalde, mota honetako ubiderapenek eragin negatiboa izan ohi dute ibaiaren ekosisteman, horma bertikalen bidezko ubiderapenen kasuan aipatu ditugun arrazoi berdinak direla eta. Dena dela, kasu honetan landatze batzuk egin daitezke ubideratutako ertzetan eta gisa horretan, zimurtasuna zigortuz, ibaiko ureko itzal-maila handitzea eta ubideko tenperatura handitzearen eragina gutxitzea ahalbidetuko da.

Bada, mota honetako ubiderapenak onargarriak izango lirатеke ubide bikoitza egiteko aukerarik ez duten hiri-garapeneko zonetan eta erregimen azkarra duten edo erregimen kritikotik hurbil dauden ibaien ubiderapenetan. Nolanahi ere den, beti komenigarria izango litzateke ertzetako ingurugiroa nabarmen berreskuratzeko moduan diseinatzea.

II. koadroan ezponda bidezko ubiderapenatarako arro-azalera desberdinentzat lortutako zabalerak adierazi ditugu, jada azaldu dugun kalkulurako metodologiari jarraiki.

Aztertutako hirugarren ubiderapen-mota ubide bikoitzekoa izan da. Gisa horretan ibaia ubide naturalean (neurri batean edo bestean izango da natural) barrera joango da erdi-mailako eta beheko uretan eta ur-boladen ubide bat izango du urtean gutxitan uholdeak izan ditzaketen goiko uretarako.

Ubide-mota honen abantaila nagusia jada aipatutako beste bi moduen arabera ubiderapen-zabalerak aldatzearen eraginez sortutako ingurugiroaren arazoak konpontzea da. Ibaiak beheko uretako ertz batzuetan orain dituen baldintzei eustea ahalbidetzen du. Aitzitik, aurreko bi kasuetan baino espazio gehiago okupatzea eskatzen du.

Hori dela eta, mota honetako ubiderapena ur-boladetan zehar erregimen mantsoa duten ibaietan eta hiri-garapenerako potentziala duten zonetan egitea proposatzen da, izan ere, oro har hiri-garapeneko zonetan jada ez da horiek ezartzeko espazio fisikorik izaten.

Zalantzarik gabe ubiderapen-mota honek irtenbide bat izan beharko luke une honetan duten erriberako landaredia artatzea beharrezkoa den hiri-garapeneko zonetan, gisa horretan goiko uretako kanalak une honetan duen ertzari eustea ziurtatuko baitu.

Agian gisa honetako ubiderapenen arazorik handiena bere diseinuan datza, izan ere, ez da nahikoa diseinu hidrauliko bati eustea, aitzitik, beharrezkoa da ibaiaren dinamika kontuan hartzea. Hasteko derrigorrezkoa da higadura- eta jalkitze-zonak, ibaietan meandroak edo kurbak sortzen dituzten zeharkako korronteen zonak, ezagutzea. Gainera, lokalizatutako energia-galerak ekiditeko, ezinbestekoa da hori goiko uretan ahalik eta morfologiarik konstanteena izan behar duen ibaira egokitzea. Ingurune naturalera egokitzeko behar hori oso garrantzitsua da, izan ere, badira gaizki egin direlako beheko uretako kanalaren lurreztatzea ere eragin duten ubiderapenen kasuak. Horietan ubiderapenaren beraren goiko uren ibai-erregimena guztiz aldatu da.

UBIDERAPEN-MOTAK

HORMA BERTIKALEN BIDEZKO UBIDERAPENA

UBIDERAPEN- ZABALERA

URBANIZAZIO-KOTA

LURRAK UNE HONETAN DUEN PROFILA

EZPONDEN BIDEZKO UBIDERAPENA

UBIDERAPEN-ZABALERA

URBANIZAZIO-KOTA

HARRI-LUBETA

BEHEKO ZABALERA

ERTZAREN BIRLANDAKETA

LURRAK UNE HONETAN DUEN PROFILA

URBANIZAZIO-KOTA

UBIDE BIKOITZA

KORONAZIO-ZABALERA

URBANIZAZIO-KOTA

BEHEKO ZABALERA

BERDEGUNEA

BEHEKO UBIDEAREN ALTUERA

IZAN DAITEKEEN ERTZEKO HARRI-LUBETA

BEHEKO ZABALERA

LURRAK UNE HONETAN DUEN PROFILA

URBANIZAZIO-KOTA

I. KOADROA

GUTXIENeko UBIDERAPEN-ZABALEREN KALKULUA

HORMA BERTIKALEKO HIRI-ZONA

MANNING ZENBAKIA

EZPONDA

ARROAREN AZALERA (KM ²)	DISEINUAR EN EMARIA (M3/SEG)	IBAITARTEA REN MALDA	GUTXI GORABEHE RAKO SAKONERA (M)	BEHEKO ZABALERA	KORONAZI O- ZABALERA	FROUDE ZENBAKIA
---	---------------------------------------	-------------------------	--	--------------------	----------------------------	--------------------

II. KOADROA

GUTXIENeko UBIDERAPEN-ZABALEREN KALKULUA

EZPONDA BIDEZKO UBIDERAPENAREN HIRI-ZONA

MANNING ZENBAKIA

EZPONDA

ARROAREN AZALERA (KM2)	DISEINUAR EN EMARIA (M3/SEG)	IBAITARTEA REN MALDA	GUTXI GORABEHE RAKO SAKONERA (M)	BEHEKO ZABALERA	KORONAZI O- ZABALERA	FROUDE ZENBAKIA
------------------------------	---------------------------------------	-------------------------	--	--------------------	----------------------------	--------------------

III. KOADROA

GUTXIENeko UBIDERAPEN-ZABALAREN KALKULUA

BEHEKO URETAKO KANALAREN BIDEZKO UBIDERAPENAREN HIRI-GARAPENERAKO POTENTZIALA DUEN ZONA

MANNING ZENBAKIA

IBAIAREN EZPONDA

ERTZAREN EZPONDA

ARROA	DISEIN	IBAITA	GUTXI	BEHEK	GOIKO	BEHEK	BERMA	ZABAL	KORONA	FROUDE
REN	UAREN	RTEAR	GORAB	O	UBIDEK	O	-	ERA	ZIO-	ZENBAKIA
AZALE	EMARI	EN	EHERA	UBIDEK	O	ZABAL	ZABAL	BERMA	ZABALER	
RA	A	MALDA	KO	O	ALTUE	ERA	ERA	N	A	
(KM2)	(M3/SE		SAKON	ALTUE	RA					
	G)		ERA	RA						
			(M)							

IV. KOADROA

GUTXIENEO UBIDERAPEN ZABALAREN KALKULU TEKNIKOA

(T=100 URTEKO UHOLDEEN PREBENTZIOA)

EMAITZEN LABURPENA

ARROAREN UBIDERAPENAREN GUZTIZKO ZABALERA (METRO)

AZALERA

(KM2)

HORMA	EZPONDA	BEHEKO	URETAKO	BEHEKO	URETAKO
BERTIKALA	BIDEZKO	KANALAREN		KANALAREN	
	UBIDERAPENA	UBIDERAPENA		UBIDERAPENAREN	BERMA-ZABALERA

5.4.2. IBAIBIDEAK IBAITARTETAN BANATZEA

5.4.1. ataleko kalkuluei jarraiki, adar-arroaren azaleraren arabera ibaibideak ibaitartetan zatitzeko aukerarik komenigarrienak ebaluatu dira. Puntu bakoitzaren eskakizun hidrologikoei estu lotuta ubide-zabalerak dimentsionatzea ahalbidetzen duen banatze-sistema zehatz-mehatz bat hartzeko aukerari araubidearen banaketa gehiegi ez zailtzeko egokitasuna aurkajartzen zaio.

Hainbat alternatiba aztertu ondoren enpirikoki iritsi gara jada 5.2 atalean adierazitako 8 kategorietan banatzeko proposamenera.

5.4.3. ERTZAK BEREN HIDRAULIKA-OSAGAIAREN ARABERA ANTOLATZEKO IRIZPIDEAK

Hidraulika-osagaiaren berariazko alderdi gisa batetik uholdeak prebenitzearen inguruko arazoak hartu ditugu aintzat eta, bestetik, ibaien ertzetan egiten diren jarduketa eta obra hidraulikoei buruzko gomendio batzuk.

Uholdeak prebenitzeari dagokionean, Araudiaren E.1. atalean adierazi dira kasu bakoitzeko hirigintza-kategoriaren arabera ubideak eta lurzoruaren erabilerak arautzeko irizpide batzuk.

Informazio-euskarri gisa ertzak antolatzeko mapen bilduman hartu dira barne. Hidraulika-osagaiaren alderdiak. UPPIaren eta Gipuzkoako Erkidegoko Ibaien Azterketaren uholde-orbanak 10, 100 eta 500 urteko errepikapen-denboretarako. Aurretiaz bi lanetako emaitzak homogeneousatu dira.

Uholdeak prebenitzeko erregulazio orokorraz gain LAPean ibaien ertzetan egiten diren jarduketa hidraulikoei buruzko hainbat proposamen eta gomendio planteatzen dira:

- Ibaien ertzetan egingo diren jarduketa hidraulikoak Iparra III Plan Hidrologikoaren 5. atalaren 1. azpiatalaren, “Uholdeen, ur-boladen eta bestelako obra hidraulikoen ondorioz sortutako kalteak prebenitzeko eta ekiditeko azterketei, jarduketei eta obrei buruzko irizpideak” izenekoaren, 2.1.5.1.1. eta 2.1.5.1.17 arteko Arauetan ezarritako irizpideen arabera arautuko dira.
- Oro har estalitako ubiderapenak ekidingo dira. Ubide bat estaltzea ezinbestekoa bada, drenatutako arroa 0,5 Km² baino gehiagokoa bada, sekzioa bisitagarria izango da, gutxienez 1,80 metroko altuerakoa eta 1,50 metroko zabalerakoa. “Ezinbestekoa” izateko baldintza azpiegituren eta Km² 1 baino gutxiagoko azalera drenatzailea duten urbanizazio handiko areetako arroetako goi-ibarren kasuetan onartu ahal izango da, betiere dagokion justifikazio hidraulikoaren azterketaren bidez.

Pixkanaka-pixkanaka dauden estaldurak kentzen ahaleginduko gara, batez ere 5 Km² baino gehiagoko arro drenatzaileak dituzten ubideei dagokienean. Jada oso hiri-garapen intentsibo finkatua duten 5 Km² baino

gutxiagoko arro drenatzaileak dituzten ubideetan dauden estaldurei bagazozkie, berriz, horiek egoki dimentsionatzen saiatuko gara.

- Km^2 1 baino gutxiagoko arro drenatzailea duten ibaibideei eragiten dieten urbanizazio-prozesuetan edo ibarretako betelanerako eta lur-berdinketarako jarduketetan ubidearen trazaduraren errektifikatzea edo, hala badagokio, estaltzea planteatzen bada, beharrezkoa izango da alternatiba hidraulikoei eta ingurugiroaren eraginen zuzenketari buruzko azterketa bat, adar-arro guztia kontuan izango duena, egitea.
- Hirigintzako plangintza edo okupazio berriko prozesuetan, arroen goi-ibarrei eragiten dieten (5 Km^2 baino gehiagoko arro drenatzaileak) eta arro osoaren azaleraren %25aren berdina edo handiagoa den azaleraren iragazkortasuna/urbanizazioa eskatzen dutenetan, hirigintza-eskuhartzea garatu ostean behealdean urak husteko ahalmena bermatuko duen azterketa hidrauliko bat egin beharko da.
- Ibaietako ubideen mozketak edo errektifikazioak egin aurretik, araudi bidez ezarritako izapide hidraulikoez gain, eskuhartzetik eratorritako ingurugiroaren, hidraulikaren eta hirigintzaren inguruko eraginen ebaluazioaren berariazko azterketa bat egin beharko da eta, hala badagokio, hirigintza-plangintza orokorrean barne hartzeko dagozkion izapideak egin beharko dira.
- Hirigintza-garapen berriko areetan, ibaien bizitasun ekologikoa errazteko, uholdeen prebentzioa eta erriberako landarediaren zaintza bateragarri egingo dituzten ubideen ubiderapenarako eta errektifikazioetarako irtenbide bigunak (ezponda berdeak, berriz landa daitezkeen harri-lubetak, ubide bikoitzak eta abar) hartzea proposatzen da. Zona horietan ubide bikoitzeko formulak erabiltzea gomendatzen da, izan ere, horiek hobeto egokitzen dira ibaiko uren maila baxuetako baldintzetara eta ibaietako dinamika hidraulikora. Ibaibide bikoitzeko formula hartuz gero Plan honek definitzen dituen ibaiarekiko distantziak bideratze bakun baliokideari egokituko zaizkio.
- Hiri-zonetan dauden ubiderapenen kasuan ere ibaiaren ibilgua ubide bikoitzaren bidez tratatzeko formulak aztertuko dira.

5.5. BERARIAZKO IRIZPIDEAK ETA PROPOSAMENAK **HIRIGINTZA-OSAGAIAREN ARABERA**

5.5.1. ERTZAK ZONATAN BANATZEA HIRIGINTZA-OSAGAIAREN ARABERA

LAPean barne hartutako ubide-multzoari dagokionean bere ertzak berariaz zonatan banatu dira hirigintza-garapen orokorraren mailaren arabera. Honela defini ditzakegu ezarritako lau zonak:

Landa-eremuko ertzak.

Hiriarteko komunikazioetarako azpiegiturek betetzen ez dituzten hirigintza-garapenik gabeko ertzak dira.

Ertz horiek oro har bat datoz hirigintza-plangintzan urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruekin.

Hiriarteko komunikazioetarako azpiegiturek betetzen dituzten ertzak.

Hiriarteko komunikazioetarako azpiegiturek —autopistek, autobiek, sare orokorreko errepideek eta trenbideek— betetzen dituzten hiri-garapeneko zonen kanpoaldeko perimetroan dauden ertzak dira.

Garatutako eremuetako ertzak.

Jada nahiko finkatutako hiri-garapena duten ertzak ditugu honakoak. Katgoria honetan, egun hirigintza-plangintzetan hiri-lurzoru gisa sailkatutako lurzoruen zati handi bat ez ezik, honakoak ere hartzen dira barne: hirigintza-plangintzetan landa-auzune gisa definitutako eremuei dagozkien lurrak, lurzoru urbanizagarri edo urbanizaezin gisa sailkatutako ibaiertzetan zehar dauden lurzoruen artean tartekatutako dimentsio txikiko ibaitarte interstizialak eta lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako herrietako kanpoaldean dauden baina ibaiertzen antolamendu espazialari dagokionean jada erdifinkatutako eraikuntza-garapenaren maila duten sektoreak. Talde honetan barne hartutako lurzoru urbanizagarri edo urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruen ibaitarte interstizialen artean bazter utzi dira interes berezia duten elementu naturalak dituztenak edo nekazaritza-balio berezia duten lurzoruei dagozkienak.

Hirigintza-garapen berriak egiteko potentziala duten eremuak.

Hirigintza-plangintzan aurreikusten denaren arabera hirigintza-okupazioko prozesu berriak izango dituzten ertzei dagozkienak dira. Oro har bat etorri ohi dira eraikuntza-okupazioaren profil baxua duten lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako sektoreekin edo horien artean kokatutako ibaitarte interstizialekin.

Gaur egun landa-eremuko ertz gisa ebaluatutako ibaitarte jakin baten sailkapena aldatzera behartzen duten hirigintza-birsailkapenak gertatzen direnean, ertz horiek hirigintza-garapen berriak egiteko potentziala duten ertzatzat joko dira, lurzoruaren sailkapen berriaren arabera hiri-lurzoru, lurzoru urbanizagarri edo urbanizatzeko egoki izan.

Zonatan banatze hori grafikoki islatu dugu ertzak antolatzekeo mapen bilduman. Hirigintza-osagaiaren alderdiak, A.4.1. eta A.4.29. arteko eta B.4.1. eta B.4.24 arteko mapak, 1/25.000 eskalara.

5.5.2. ERTZAK BEREN HIRIGINTZA-OSAGAIAREN ARABERA ANTOLATZEKO IRIZPIDEAK

Landa-eremuko ertz gisa zonatan banatutako ertzak:

— Hirigintza-osagaiaren arabera landa-eremuko ertz gisa hartutako ertzetan ubide publikoko mugabanaketa-lerroarekiko edo itsasoko erriberako barruko mugarekiko gutxienez erretiro bat errespetatuko da. Erretiro hori honakoa izango da:

- 50 metrokoa urtegietarako eta $A > 100 \text{ Km}^2$ -ko adar-arroa duten ibaitarteetarako (III, IV, V eta VI mailako ibaitarteetarako).

- 30 metrokoa $10 < A \leq 100 \text{ Km}^2$ -ko adar-arroa duten ibaitarteetarako (I eta II mailako ibaitarteetarako).

- 15 metrokoa $1 < A \leq 10 \text{ Km}^2$ -ko adar-arroa duten ibaitarteetarako (0 mailako ibaitarteetarako).

- Km^2 1 baino gutxiagoko adar-arroa duten isurketa edo ibaibideei (00 mailako ibaitartei) dagokienez Uren Legeak ezarritakoa izango da aplikagarri.

Erretiro horiek lur naturalaren alterazioa dakarten eskuhartze guztietan aplikatuko dira (eraikuntzetan, mota guztietako instalazio edo eraikitzeetan, finko nahiz desmuntagarrietan, lur-berdinketa edo -mugimenduetan eta abarretan). Salbuespen izango dira nekazaritzako eta basozaintzako zereginak, obra publikoei edo azpiegitura-instalazioei dagozkienak edo ondare kulturala babestera bideratutako ekintzak, behar bezala justifikatutakoak.

Dena dela, udal-plangintzak jada badauden baserrien laguntza-eraikinak eraikitzeke kasuei dagokienean eta goian aipatutako zerrendetatik kanpo eraiki daitezkeela frogatzen denean, eraikuntza hori zein baldintzatan gauzatu ahal izango litzatekeen ezarri ahal izango du, ubidera lehendik dauden eraikinak baino gehiago ez hurbiltzeko irizpidean oinarrituta.

- 1. puntuan ezarritako mugapen orokorren osagarri gisa, ubidearen bi aldeetako 100 metroko zabalerako banda batean lurzoru urbanizaezinak berezko dituen eraikuntzak, jarduerak eta lurzoruaren erabilerak bakarrik ahalbidetuko dira.
- Lehentasunezko interes naturalistikoko zonetan edo ondo artatutako landaredia duten zonetan kokatutako landa-eremuko ertzetan egun dituzten baldintza naturalak alda ditzaketen eskuhartze guztiek ingurune fisikoaren ezaugarriak artatzea bermatu beharko dute. Kasu guztietan ingurune naturala, eta hala dagokionean interes kulturalako ondarea, ahalik eta gehien errespetatzeko eskatu behar da, baita sor daitezkeen eraginak zuzentzeko neurriak hartzea ere, 1. puntuan ezarritakoari jarraituz.
- Landa-eremuko ertzak dituzten ubideetan ez da trazaduraren alteraziorik, estaldurarik edo errektifikazio artifizialik egingo. Salbuespen izango dira aginpidedun autoritate hidraulikoak, hala dagokionean, erabaki ditzakeen uholdeak prebenitzeko edo obra publikoak eraikitzeke eskuhartzeak. Kasu horretan, proiektuak sor daitezkeen kalteak konpontzeko azterketa bat izan beharko luke lagun. Arau orokor gisa kasu horietan ingeniariak "biguneko" irtenbideak hartzen ahaleginduko gara, erriberako landaredia galtzea, uraren lamina gehiegi zabaltzea eta dispersatzea eta ibaiaren ibilguaren homogeneizazioa ekiditeko.
- Arroen goi-ibarretan eta, hala badagokio, inerteen lur-berdinketak eta zabortegeak sortzea ahalbidetzeko, 3 Km² baino gutxiagoko adar-arroa duten erreken errektifikazioa baimendu ahal izango da, aginpidea duen autoritate

hidraulikoak ezartzen dituen baldintzen arabera. Nolanahi ere den, adar-arro guztiaren azterketa hidrauliko bat beharrezkoa izango da, baita zuzenketa-neurrien proiektu bat ere.

- Plan honek ezarritako ertzen erregulazioari dagokionean, landa-eremuko ertzak hirigintza-garapen berriak egiteko potentziala duten ertz gisa hartuko dira, horiek beren hirigintza-garapenari ekiteko hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa birsailkatzen diren unean.

Hiriarteko komunikazioetarako azpiegiturek betetzen dituzten ertz gisa zonatan banatutako ertzak:

- Hirigintza-osagaiaren arabera hiriarteko komunikazioetarako azpiegiturek betetzen dituzten ertz gisa hartutako ertzetan landa-eremuko ertzetarako ezarritako gutxieneko erretiro-erregimena aplikatuko da. Alabaina izango dute berezitasunik, izan ere, kasu honetan onartu egin beharko dira hiriarteko komunikazioetarako sare orokorreko dagozkien azpiegiturak ezartzetik eratorrirako ingurune naturalaren gaineko eraginak.

Dena dela, udal-plangintzak azpiegituraren entitatea ikusita, Plan honek ezarritako mugapenak kendu ahal izango ditu arloko legeriaren arabera azpiegiturak ezar ditzakeen mugapenen mesedetan.

- Obra publikoen ubideei eta hiriarteko komunikazioen sare orokorreko elementuei dagokienean honakoak izango dira erretiro-irizpideak:
 - Iparra III Plan Hidrologikoaren 5. atalean, Muturreko Egoera Hidrologikoak izenekoan, jasotako irizpideak.
 - Ezintasun bereziren batengatik ez bada Uren Legeak ezarritako 5 metroko zortasun-zerrendari eustea.
 - Justifikatutako berriazko ezintasunen batengatik ez bada, interes naturaleko elementuak edo erriberako landaredia artatzea.

Garatutako eremu gisa zonatan banatutako ertzak:

Ertz-zona honen erregulazioari dagokionean nagusi den irizpidea ibaia ibai gisa hartzeaz gain hiri-paisajearen konfigurazioan garrantzi handia duen elementu gisa eta ingurune naturala hirien barruan integratzeko bitarteko pribilegiatu gisa hartzea da.

Helburu horrek bateragarri izan beharko du uholdeak prebenitzeko erabakiko diren eskuhartze hidraulikoekin eta ibaien ubideetatik gertu kokatutako interes kultureko ondarearen elementuen zaintza bermatzeko diseinatuko diren konpromisoazko irtenbideekin.

- Garatutako eremuetako ertz gisa hartutako ertzetan gutxieneko eraikuntza-erretiroek eraikuntzaren eta ibaiaren arteko bat egite espazial aski handia bermatuko dute eta, hala badagokio, baita uholdeen aurrean defendatzeko etorkizunean beharrezko izango diren obren bideragarritasuna ere.

Bi egoera desberdin planteatzen dira:

- Mugabanaketa duten ibaitarteetan edo jada ubiderapen-obrak egin edo proiektatu eta definitu dituztenetan, ubidearen lerroa jada finkatuta dagoenez, eraikuntza-erretiroak zehatz ezar daitezke.
- Ubiderapen-obrak oraindik egin edo proiektatu ez diren ibaitarteetan eraikuntza-erretiroek oraingo ubide publikoaren kanpoko lerroa hartu beharko dute aintzat.

Garatutako eremuetako ertzetako eraikuntzei dagokienez, honakoak izango dira ubide publikoaren mugabanaketa-lerroaren gutxieneko eraikuntza-erretiroak, adar-arroaren azaleraren arabera:

UBIDE-TARTEEN MAILAK	ADAR-ARROAREN AZALERA Km ²	GUTXIENeko ERAIKUNTZA-ERRETIROA METROTAN	
		mugabanaketa-lerro* edo ubiderapen definituarekin	Mugabanaketa-lerro edo ubiderapen definiturik gabe
VI	600 < A	15 m.	30 m.
V	400 < A ≤ 600 Km ²	15 m.	25 m.
IV	200 < A ≤ 400 Km ²	15 m.	22 m.
III	100 < A ≤ 200 Km ²	12 m.	16 m.
II	50 < A ≤ 100 Km ²	10 m.	14 m.
I	10 < A ≤ 50 Km ²	10 m.	12 m.
0	1 < A ≤ 10 Km ²	10 m.	12 m.

* edo itsasoaren erriberaren barneko muga.

- Eraikuntza berrirako ezarritako erretiroen koadro orokorrera egokitzen ez diren garatutako eremuetako ertzetako ubideetako eraikuntza-erretiroak modu xehekatuan finkatu eta justifikatuko ditu udalerrri bakoitzeko plangintza orokorrak ondoren adierazitako irizpide orokorre jarraiki:
 - Udalerrriko hiri-eremuak zeharkatzen dituzten ubide guztien, ireki nahiz estalien, funtzionamendu hidraulikoa identifikatzea eta justifikatzea uholdeak prebenitzeko neurriei dagokienean.
 - Finkatutako hiri-bilbeetako eraikuntza-erretiroak:
 - Hirigune historikoekin bat egiten duten ubideen ertzetan erretiroak Plan Bereziaren arabekoak izango dira.
 - Oro har, jada finkatutako hirigintza-antolamendua duten ubideetako ertzetan eraikuntza-erretiroek bat etorri ahal izango dira lehendik dauden eraikuntzekin, betiere iragaiterako zortasun-zona errespetatzen den bitartean.
 - Kasu berezietan, arrazoi topografikoak, hidrografikoak edo interes kultureko ondarea (hirigune historikoak, interes kultureko eraikinak...) artatzearen ingurukoak direla eta, salbuespen gisa, iragaiteko zortasun-area aldatu ahal izango da Uren Legerian ezarritakoari jarraiki.
 - Hiri-birmoldaketako zonetako eraikuntza-erretiroak:

- Dagoen hiri-garapena zaharkituta dagoela eta eraikuntzak eraberritzea komenigarria izan litekeen ertzetan (oro har hiri-lurzoru industrialak izan ohi denetan) eraikuntza-lerroa koadro orokorrean ezarritakora egokitu da, kasu berezi batzuetan, hau da, dagokion Hirigintzako Planaren (PERI) bidez eraikuntza berriaren lerroa lehendik zegoen lerroa hurbiltzeko beharra eta egokitasuna eta, agian, baita horrekin bat etortzekoa ere, justifikatzen den kasuetan, izan ezik.
- Gainerako eraikuntza berriei dagokienean eraikuntza-erretiroak koadro orokorraren arabera izango dira.
- Hirigintza-plangintza edo -okupazio berriko prozesuetan, arroen (5 Km² baino gutxiagoko arro drenatzaileen) goi-ibarrei eragiten dietenetan eta arroaren guztizko azaleraren %25aren berdina edo handiagoa den azaleraren iragazkortasuna/urbanizazioa eskatzen dutenetan, hirigintza-eskuhartzea garatu ostean behealdean urak husteko ahalmena bermatuko duen azterketa hidrauliko bat egin beharko da.

Hala badagokio, ubideen estaldura E.2.2. epigrafean xedatutakoaren arabera arautuko da.

- Eraikuntza berri guztietan lurrazpiko aparkalekuekin eta sotoekin okupatzeko mugak ez du gaindituko ubide publikoarekiko 5 metroko gutxienerako erretiroa.
- Isurketen edo ibaibide txikien erretiroen antolamendua Uren Legearen xedapenen arabera arautuko da.

Hirigintza-garapen berriak egiteko potentziala duten eremu gisa zonatan banatutako ertzak:

- Araudi hau hirigintza-garapen berriak egiteko potentziala duten eremuetako ertzetan ez ezik, une honetan landa-eremuko ertz gisa hartzen diren baina etorkizunean hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri

edo urbanizatzeko egoki gisa berriz sailkatuko diren ertz guztietan ere aplikatu da.

- Hirigintza-garapen berriak egiteko potentziala duten eremuetako ertz gisa kategorizatutako ertzak batez ere gutxieneko azalera-entitatea duten lurzoru urbanizagarriko edo urbanizatzeko egoki den lurzoru sektoreei dagozkie. Horietan ubidearekiko mugakide den lurzoru hutsa erabilgarri izateak ertzen antolamendu espazial zabalagoa ahalbidetzen du, hidraulikaren, hirigintzaren zein ingurugiroaren ikuspegitik.

Ertz horietan dagoen erriberako landarediari eusten lagunduko duen eta, hala dagokionean, uholdeen aurrean babesteko beharrezko ubiderapen-obren bideragarritasuna bermatuko duen eraikuntza-erretiroetarako araudia planteatzen da.

Ertz horiek tratatzeko obren diseinurako konfigurazio "bigunak" hartzea gomendatzen da, eraikitako ezpondak ezarriz edo, egingarri bada, ubide bikoitzaren formularen bidez.

- Hirigintza-garapen berriak egiteko potentziala duten eremu gisa definitutako ertzei dagokienean, jada garatutako hiri-zonetako ertzetako eraikuntza- eta urbanizazio-erretiroak baino exijenteagoak planteatzen dira.

Ubiderapenerako eta ertzak tratatzeko obrak oraindik definitu gabe daudela eta kasu guztietan erretiroak ubide publikoaren mugabanaketa-lerro teorikoari dagozkiola hartu da abiapuntutzat.

Eraikuntzarako eta urbanizazio-plataformarako plantatutako gutxieneko erretiroak ondoren adierazi ditugunak dira:

UBIDE-TARTEEN KATEGORIAK	ADAR-ARROAREN AZALERA Km ²	ERAIKUNTZAREN GUTXIENEO ERRETIROA metroak	URBANIZAZIOAREN GUTXIENEO ERRETIROA metroak
VI	600 < A	35	20 (25)
V	400 < A ≤ 600 Km ²	30	15 (20)
IV	200 < A ≤ 400 Km ²	26	11 (16)
III	100 < A ≤ 200 Km ²	20	8 (10)
II	50 < A ≤ 100 Km ²	16	6 (8)
I	10 < A ≤ 50 Km ²	12	2 (4)
0	1 < A ≤ 10 Km ²	12	2 (4)

Erretiro horiek lotesleak izango dira eraikuntza berrien kasuan eta izaera adierazgarria izango dute jada egindako eraikuntzak artatzeko, birmoldatzeko eta ordezteko eragiketen kasuan. Proposamen hau lurzoru bakoitzaren berariazko hirigintza-sailkapenarekiko independente izango da alderdi bati dagokionean izan ezik: lur urbanizagarrietan edo urbanizatzeko egoki direnetan erretiro-zonak lurzoru-lagapentzat, derrigorrezko nahiz doakotzat, hartu ahal izango dira sistema lokal gisa.

Hirigintza-garapen berriak egiteko potentziala duten eremuetako ertzen hirigintza-zona ondo artatutako landaredia duten ertzen ingurugiro-zonarekin bat etorriko balitz, gutxieneko urbanizazio-erretiroaren parametroa koadroan parentesi artean adierazitako zenbakira arte zabaldu ahal izango da, erriberako landaredia artatzea ahalbidetzeko helburuarekin.

- Hirigintza-plangintza edo -okupazio berriko prozesuetan, arroen (5 Km² baino gutxiagoko arro drenatzaileen) goi-ibarrei eragiten dietenetan eta arroaren guztizko azaleraren %25aren berdina edo handiagoa den azaleraren iragazkortasuna/urbanizazioa eskatzen dutenetan, hirigintza-eskuhartzea garatu ostean behealdean urak husteko ahalmena bermatuko duen azterketa hidrauliko bat egin beharko da.

Hala badagokio, ubideen estaldura E.2.2. epigrafean xedatutakoaren arabera arautuko da.

- Eraikuntza berri guztietan lurrazpiko aparkalekuekin eta sotoekin okupatzeko mugak ez du gaindituko ubide publikoarekiko 5 metroko gutxieneko erretiroa.
- Hirigintza-garapen berriak egiteko potentziala duten eremuetako ertzetan ubide publikoaren mugabanaketa-lerroaren eta gutxieneko urbanizazio-erretiroaren lerroaren arteko lurzoru-azalerak espazio libreen sistema lokalaren izaera eduki ahal izango du eta Lurzoruaren Legearen Plangintza Erregelamenduaren Eranskinean definitutako espazio libreen lagapenatarako estandarrei dagokienean zenbatu.
- Isurketen edo ibaibide txikien erretiroen antolamendua Uren Legearen xedapenen arabera arautuko da.

Hirigintza-osagaiaren arabera ertzen lurralde-antolamendua ezartzeko zehaztapenen erregulazio zehatza LAParen Araudiaren 2. agiriaren F kapituluari garatu dugu modu sistematizatuan.

5.6. ERREGULAZIO NORMATIBOA

LAParen izaera normatiboko zehaztapenak Araudiaren agirian (4. liburukian) eta ertzak antolatzeko mapetan bildu dira: ingurugiro-osagaiaren alderdiak (5. eta 8. liburukiak), hidraulika-osagaiaren alderdiak (6. eta 9. liburukiak) eta hirigintza-osagaiaren alderdiak (7. eta 10. liburukiak).